

2014ko apirila



## ELKARRIZKETA

**Jon Sarasua:**  
«*Euskalgintzaren  
estrategiak eredu  
beregain batean  
bermatzeko aldia da*»

## ERREPORTAJEA

**Ohitura ala adikzioa?**

## EZTABAIDA

**Bizikleta bideetatik  
barna eztabaidan  
Vitoria-Gasteizen**



## GRAMATIKA

**Puntuazioaren oinarriko  
arauak (2): esaldi barneko  
puntuazioa (1)**

JUAN GARZIA

## HITZETZ HITZ

**Euskarazko lege-testuen  
beregaintasuna eta  
segurtasun juridikoa**

JAIONE ARAMENDI

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEAErakunde autonomaduna  
Organismo Autónomo delEUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEMEN EUSKARAZ



Importante: Las quejas formuladas en esu administrativos, ni paralizarán los plazos e. Las sugerencias o iniciativas podrán ser pres

**Zuzendaritza:**

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

**Koordinatzailea:**

Xabier Amatria

**Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:**

Itxaropena S.A.

**Ilustrazioak:** Concetta Probanza

**Zenbaki honetako lankideak:**

Alaine Agirre, Marimar Aguirre, Begoña Aierdi, Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Jaione Aramendi, Urtzi Barrenetxea, Miel A. Elustondo, Irene Fernández, Juan Garzia, Igor Leturia, Luma, Manu Marañon, Maite Orue, Nerea Pikabea, Koldo Telleria, Izaskun Zuntzunegi

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argitaratutako artikulua berridatuz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ISSN: 1576-5563

Legezko Gordailua: BI-1141-93

**Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

Donostia-San Sebastián 1,  
01010 VITORIA-GASTEIZ.

Tel. 945 01 76 37

[www.ivap.euskadi.net](http://www.ivap.euskadi.net)

# Aurkibidea

- 2 Marrazkia**  
MARIMAR AGUIRRE
- 4 Pertsonaia**  
Ametz Arzallus  
NEREA PIKABEA
- 5 Elkarrizketa**  
Jon Sarasua:  
«Euskalgintzaren estrategiak eredu beregain batean bermatzeko aldia da»  
MIEL A. ELUSTONDO  
ZALDI ERO
- 10 Informazio eta komunikazioaren teknologiak**  
Bitcoin, mundu digitaleko txanpona  
IGOR LETURIA
- 12 Erreportajea**  
Ohitura ala adikzioa?  
MAITE ORUE
- 17 Leihatila**  
Sophie Kaletik  
ALAINA AGIRRE
- [ARIKETAK]
- 19 Eztabaida**  
Bizikleta bideetatik barna eztabaidan Vitoria-Gasteizen  
MIEL A. ELUSTONDO
- 24 Giza baliabideak**  
Jendaurrean hizlari... hau pribilegioa!!!  
MANU MARAÑON
- 26 Gramatika**  
Puntuazioaren oinarriko arauak (2): esaldi barneko puntuazioa (1)  
JUAN GARZIA
- 28 Pasadizoak**  
Asmatu ezetz!  
KAXILDO ALKORTA
- 29 Hitzez hitz**  
Euskarazko lege-testuen beregaintasuna eta segurtasun juridikoa  
JAIONE ARAMENDI
- 32 Normalizazioa**  
Lurralde bakarra, hiru hizkuntza, modu anitz  
KOLDO TELLERIA
- 34 Denbora-pasak**

# AMETS ARZALLUS,

BERTSOLARIA:

## «Zer esan, zeri kantatu... horretan badago hobetzeko tartea»

NEREA PIKABEA

KAZETARIA



Argazkia: Galdar Izagirre. Xenpelar Dokumentazio Zentroa

euskararen baitan zer egosten den eta horrek zer mundu aukerak zabaltzen dituen erakusteko. Bertsoaren mundua euskaratik pasatu gabe ezinezkoa da. Horretarako lagungarri izan baldin badaiteke, txapelaren energia horretan inbertituko nuke.

**Txapelketa garaian zenbaitek esan dute literaturaranzko joera hartu duela bertsoaritzak, ahozkotasanetik urrunduta.** Nik desberdintzen dut plazako bertsoaritzak eta txapelketakoa. Batez ere bakkakora eramandako kritika bat edo azterketa bat dela esango nuke. Kritika hori bi aldetatik hartzen dut: batetik, eman dezake maila baten aitortpena, eta, bestetik, eman dezake bat-bateotasunaren pertzepzioaren galera bezala. Bertsoa berez bat-batean jasotzeko da, baina ulermen maila minimoan eman eta pixka bat konplexu samarra bada, ni ez naiz bereziki kontrakoa.

**Bertsolaritzari zer erronka edo zer premia ikusten dizkiozu?**

Iparraldean, oso oinarrizko alorretan gaude oraindik. Bertso eskolen sare bat zabaltzen ari da. Bertsozaletasuna kuantitatiboki aberasteko momentua da. Bertsoak laguntzen du euskararen lur hori ongarrizten eta prestigio pixka bat ematen. Hori da, gaur egun, Iparraldean euskaldun bezala erronka handiena, bertsogintzatik eta euskalgintzatik begiraturata. ■

**Zure bereizgarrietako bat hizkuntza maila da, euskara maila. Nola landu duzu?**

Euskara nire ama hizkuntza da. Gero, Kanbora joan ginenean, hamar urterekin, euskalki desberdinak eta euskararen musikaltasun eta lexiko bariedade handi bat jasotzeko pribilejioa eduki nuen. Nahigabe, eltze horretan hezi nintzen, eta hori tokatu zitzaidan nire belarri jiran. Gero, noski, bertsoan ibiltzean, beti hitzen eta hizkuntzaren inguruan, pixka bat jolasean eta borrokan zabilta. Orduan, hor lanketa bat derrigorrezkoa badago norberaren baitan.

**Bertsolari gisa zertan hobetzea gustatuko litzaizuke?**

Teknikoki beti dago lana egiteko, baina zer esan, zeri kantatu... horretan badago hobetzeko tartea. Gure inguruko gaiak, euskaldun izateak ematen digun perspektiba munduari begiratzeko. Hor badaogo aurrez zer pentsatua, neure kezketan aberastu, perspektiba desberdinak bilatu eta hortik zure ahotsa eraiki. Horren inguruan lanketa bukatzina da. Esate baterako, umorean nekezago defendatu izan naiz, hor badaogo hobetzeko tartea.

**Iparraldeko jendearentzat garrantzitsua izango da txapelduna bertakoa izatea, ezta? Erdaldunak euskararen mundura ekartzeko balio dezake?**

Beti laguntzen du hurbilxeagokoa izateak. Ikastoletako bertso eskolako gazte txo euskaldunentzat eta euskaldunak ez direnentzat erreferentzia bat izan daiteke,

«Txapelaren gerizpera egokitze lanetan dabil kazetari eta bertsolari hendaiarra, bat-bateko hitz jolas kantatuaren garaile berria. Txapelketako koba psikologikotik aterata, asteroko bertso plazetan murgilduta dabil berriro. Bere izanari eta ekinari eutsita, txapela jantzi ondoko zalapartak itsutu gabe, baina aldi berean, horrek duen arduraz jabetuta hartu gaitu Hendaian, Iparraldeko bertsogintzari eta euskarari hauspoa emango dion itzaropenarekin».

**Hilabete batzuk pasa dira txapela irabazi zenuenetik. Nola daramazu txapelaren ardura?**

Txapelak baditu sinbologia bat, prestigio bat eta nolabaiteko estatus bat, kosta egiten dena nik neure begietatik digeritzen neure pertsonan. Kontziente zara, arduratu bat sentitzen duzu. Uste dut oraindik digestio fase batean nagoela, nahiz eta norbere barruan ez den sentitzen ezeren aldaketarik.

**A**zkena, IVAP erakundearen 30. urteurreneko ekitaldiaren karietara jaso genituen Jon Sarasuak euskararen gainean egindako gogoetaren zertzeladak. Argitaratu berri zuen liburua, *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak* (Pamiela, 2013). Elkarrizketan pentsamenduan sakontzeko bidea egin digu, etorkizuneko ikuspegia ardatz harturik.

## JON SARASUA:

**«Euskalgintzaren estrategiak eredu beregain batean bermatzeko aldia da»**

MIEL A. ELUSTONDO • ZALDI ERO  
IDAZLEA ETA ARGAZKILARIA



**Zergatik ari gara, euskarari dagokionez ere, garai berria bizi dugula aldarrika?**

Garai guztiak dira berriak, eta, alde horretatik, «berritasuna» neurrian hartu beharko dugu. Bost hamarraldiko euskalgintza modernoaren segidan gaude, hor ari gara corpusarekin, hezkuntzarekin, hedabideekin, kulturgintzarekin... lehengo haritik. Zenbait berritasun ere ageri da. Bost hamarraldiotan izandako espektatiba, bisio eta ametsen formulazio batzuek huts egin dute. Eta alarma berriak pizten hasi dira, erabileraren aldetik eta beste. Maila kuantitatiboan egindako ahalegin bipil horrek ez du, kuantitatiboki, espero genuen emaitzarik ekarri gauza batzuetan. Berritasuna da, era berean, borroka armatuaren eta polarizazio politiko larriaren aldaketarekin batera, gauza batzuk beste patxada batekin pentsatzeko eta energia batzuk orain arte baino hobeto bideratzeko egokiera dugula. Berritasunak zerrendatzea luze joko luke, eta asko dago berrikusteko. Dena dela, gauza bat orain arte baino hobetuxeko egiteko garaia izan liteke, egoera irakurrita: euskararen garapena zentraltasun propio batetik planteatzeko garaia, diskurtso alderdikoen ertzetan katigatu gabe.

**Hor da, hortaz, zure ekarpena: Hitzunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apuntea.**

Arlo honetaz buruan zebilzkidanak hustu ditut. Lau bat urteko idazkuntzaren emaitza da, baina liburuko gogoeten genesisia hogeitahogei bost bat urtekoa izango da. Artean, gazte euskalgintzako erakundeetan hasi nintzenetik pasatako paisaietatik datoz ideiak. Ideiak, iritziak eta ikuspegiak oharkabean pilotzen jardun dut, baina, batez ere, ekintzan ibili naiz. Azken aldian, barruko ideien karga sentitu nuen, atera beharra, hustu eta aurrera egiteko.

**Zure lanaren azpiztituluan «apunteak» hitza baliatu duzu, baina hori baino gehiago da liburu hau.**

## «Ekintzaren planotik estrategien eta etorkizuneko ikuspegiaren planora kontrabandoan ibili beharra dago»

Beharbada, neure buruari espektatibak apaltzeko bidea da hitz hori erabiltzea. Azkenerako 360 orrialdetik gora badira, hemeretzi kapitulu, eta ohartzen naiz neuk uste baino gehiago zegoela ganbaran.

**Hitz berria asmatu diguzu euskararen herriarentzat: Hitzunpolisa.**

Hasieran, *Hitzun polistika* jarri nahi nuen liburuaren tituluan. «Polistika» eta «politika» hitzekin joko baitago kapitulu batean. Eta «hitzun», etorkizuneko planteamenduen ardatza hitzun kondizioaren inguruan joango delako neurri batean. «Hitzun polistika», beraz «hizkuntza politika» esateko. Apur bat kakofonikoa izan liteke titulua izateko, eta «hitzunpolisa» egokiagoa egin zitzaidan. Ez nuen «euskararen herria» kontzeptua saihestu nahi, baina iruditu zitzaidan hitzunpolisa iradokitzaileagoa izan zitekeela.

**Politika nahiz polistika, zenbait herri agintaririk euskararen despolitizazioa du beti aldarrika. Zuk birpolitizazioa defendatzen duzu. Horixe entzun genion Koldo Izagirri Autopsiarako frogak liburuaren bueltan.**

Batzuek euskara despolitizatu behar dela esan dezakete, eta beste batzuek euskara independentziarako borrokaren azpialtza hartu. Bata eta bestea baino harago, iruditzen zait politika birpentsatzea deituta gaudela, politika hitzaren zentzurik zabalenean. Ez bakarrik estatuaren boterea gestionatzeko jardun bezala, bai-

zik eta kapital-boterearen, estatu-boterearen, eta gizarte antolatuen boterearen joko geruzaka ulertzearen aldetik. Uste dut gaur egungo gogoeta soziologiko eta politikoak ere integratu egin behar ditugula etorkizuneko herrigintza pentsatzerakoan. Iruditzen zait, zentzu horretan, birpolitizazioa behar dugula gizartea eta politika pentsatzeko eta, horren barruan, jakina, hizkuntza pentsatzeko. Hizkuntza gure polisaren korapilo nagusietako bat da, eta ezin da polistikatik –edo politikatik, zentzurik zabalenean– kanpo ulertu. Uste dut jakinekoa dela hori. Bestetik, ordea, esan behar da hizkuntza ezin dugula jarri alderdien dinamika elektoral ezagun horien gurrpilean. Momentu honetan, oso arriskutsua litzateke euskararen aldarririk sakonena alderdi, bloke edo sentsibilitate politiko elektoral jakin batekin identifikatzea, subliminalki bada ere. Hori gertatzeko arriskuak badira, eta uste dut hondotik saihestu behar ditugula.

**Gaur egun, euskara agenda politikotik bazter dago?**

Ez dago agenda politikoaren lehentasunezko lekuetan. Beharbada, agenda politikoaren lehen lerroan balego, ziurrenik ondorioa makurra litzateke –hemengo dibergentzia-sena ezaguturik, eta indar politikoetan dugun bisioak marrazteko gaitasun urria–. Baina hizkuntza herri honetako korapilo nagusietakoa izanik, bigarren mailan egotea ere ez dagokio. Liburuan, eskema moduko bat iradokitzen da datozen hamarraldietarako. Euskararen gizarte-erakundearen sare trinko xamar bat badugu, hitzun komunitatearen geruza zibil antolatua da, eta beronek irabazten badu hitzun komunitatearen gidaritza sinboliko beregain xamarra egiteko autoritate morala, alderdi politikoek erreferentzia bat izan dezakete, eta errazago genuke gai hau alderdikieratik babestea eta akordio sendoak lortzea. Alderdiei dagokien zatian, akordio zabalik gabe jai du gai honek. Horretarako, ordea, euskalgin-

tza sozial horrek autoritatea irabazi behar du alderdi desberdinen aurrean. Doinu propioa behar du. Bide luzea dago egiteko horretan, bai euskalgintzan eta bai alderdietan.

## «Hankak lokatzetan sartuta dituenak, gehienetan, etorkizuneko ikuspegia falta du»

**Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, herri erakundeek eta gizarte eragileek ere akordioa egin behar dute?**

Geruza asko nahasten dira arlo honetan. Alderdien arteko jokoak da geruzetako bat, eta hor gai hau edonola ez erabiltzea lehia elektoralerako eta indar metaketa taktikoetarako. Beste geruza bat da herri honi dagokion egitura politikoari buruzko eztabaida sakonagoa, eta horretan tartea izan behar du gure hizkuntzaren zoriak ere. Beste geruza bat da, koiuntura honetan, hizkuntzaren garapenaren lidergo sinbolikoa –eta, neurri batean, estrategikoa–, zein eragileri dagokion. Eta azken honetan, uste dut gizarte-erakundeek rol bat dutela betetzeko, eragile publikoek gain. Lehen esan dugun moduan, erreferentzia rola bete dezake beste indar guztientzat, eta estrategia mailako beste funtzio batzuk ere bai. Zuk aipatzen duzun akordio hori ez da berdinen arteko akordioa. Bakoitzak bere legitimitatea du, oso desberdina. Ezin ditugu parean jarri euskararen hauspoan dabiltzan gizarte eragileak, eta erakunde publikoak edo alderdi politikoak. Bi plano ezberdin dira.

### **Bi plano ezberdin.**

Erakunde publikoek ulertu egin behar dute gizarte-erakundearen papera, eta no-

## GIZARTE ATXIKIMENDUA, GIZARTEAREN AKTIBATZEA...

«Erlaxatzea badago, baina mailak bereizi beharko genituzke. Batetik, jendea harritu egingo litzateke jakingo balu zenbat jende ari den hizkuntzaren garapenaren aldeko lanean, borondatez eta ogibidez –borondate plusa jarriz betiere–. Edo zenbat jendek egiten duen borondate jartze egunerokoa, tabernan euskaraz eskatzeko, euskarari dagokiona emateko, erabiliz eta ikasiz. Oraindik, ahaleginaren emaria handia da komunitate honetan. Ez dezagun hori gutxietsi. Hori esanda, egia da belaunaldi berrietan beste aldarte bat dagoela. Ez dute amestu eta borrokatu behar izan ikastolak sortzeko edo euskararen azpiegitura diren errealitateak sortzeko. Eginda etorri zaie, eta horrek jarrera aldatzen du, tentsioa ez da berdin bizi. Horrez gain, gauzekiko egungo atxikimendu modua lausoagoa da, zapping-aren arokoa, eta horrek gai honekiko jarreraren ere badu bere isla. Edonola ere, hor egin beharko du euskaltasunak igeri».

labait, gidaritza sinbolikoa partekatze-ko beharra gai honetan. Erakunde publikoak ez dira erakunde bakarrak gizarte batean. Hitzun komunitatearen gogo eta ahalegin antolatuen emaitza dira gizarte-erakundeak, ezinbestekoak, oso kontuan hartzeko erreferenteak. Eta, aldi berean, hor dago erakunde publikoen legitimitatea, eta ezin da ordezkatu edonola. Hori harilkatzen asmatu behar dugu. Horretarako, ordea, gizarte eragile hauek ere iraganeko zenbait inertzia gainditu behar dituzte: askotan dena nahastu den aro batetik gatoz, eta, oraindik ere ez da mamitu geruza bakoitzaren autonomia sendoa.

### **«Inertziak», diozu. Kontseilua ere kritikatzeko duzu Hitzunpolisian.**

Liburua ez da oldarkorra, eraikitzailea da tonu nagusia, baina aipatzen dira gainditu beharreko inertziak ere, eta, tartean, Kontseiluarena. Kontseiluak funtzio inportanteak bete ditzake lehen

aipatu dudak horretan. Lau funtzio bete ditzake arlo batean: gidaritza, lotura, estrategia eta ahotsa. Horretarako, sinesgarritasun tranbertsalak lortu behar dira. Nik uste dut izan litekeenera iristen ez den erakunde delat, beste lehentasun batzuetan trabatu dela. Gogoeta bat da. Erosoagoa litzateke horrelako gogoetak ez egitea, gehienok elkarren ezagunak baikara, eta elkarren estimazioa galtzeko arriskua baitago. Arrisku batzuk hartu ditut. Pertsonak estimatzen jarraitzen dut, ez daukat arazo pertsonalik inorekin. Ziurrenik denok ari gara ahalegin zintzoa egiten. Baina uste dut halako liburu batek egin behar duen zerbitzua hori dela, debaterako ideia proposatzea, eta arrisku batzuk hartzea.

**Hiruzpalau hilabete badira liburua kaleratu zenuenetik. Ez zenuen aurkezpenik aurkezpen ibili gogo, eztabaida eragin baizik. Zein bide egin duzu hilabeteotan?**

# NOIZ ALDUDEN, NOIZ AREATZAN

«Ibili egin behar da. Gipuzkoatik ez da dena ikusten! Gainera, periferian ditugu, askotan, pertsonarik interesgarrienak ez ezik, datorrenaren arrasto interesgarrienak ere. Aldudetik pasa behar da, eta Bizkaiko Areatzatik, Balmasedatik, Gasteizetik eta Tafallatik. Gauza interesgarriak gertatzen ari dira dinamiken aldetik, eta, bestalde, galdera gorriak daude mahai gainean... Askotan, iruditzen zait Gipuzkoatik pentsatzen duela euskalgintza ofizialak.»

Gustura nago, egia esan. Liburuan ageri diren hainbat arlo, aurretik ere landu nituen hainbat hitzalditan, hainbat urtetan, herri eta lurralde ezberdinetan. Liburuia idatzita ez nuen jarraitu nahi hitzaldi orokorrak ematen. Liburuari trazio egitea iruditzen zait pixka bat, bertan xeheki idatzitakoak hitzaldietan sinplifikatzen ari ninteke, gaizkiulertuetarako bide ematen. Esan diet herri batzuetan: «Deitzen badidazue, nahiago dut berrogeita hamar entzuleri ordu beteko hitzaldia eman baino, liburuia irakurri duten dozena batekin bildu, eta haiekin gogoe-tan eta ekintzen planoan jardun, “Eta orain zer?” galderari erantzunez». Pozik nago, dena dela; mugimendua ikusi dut ideia hauen inguruan, han mahai inguru bat, bestean hitzaldi bat, hemen mintegi bat erakunde bateko langileekin. Azken hori zait, beharbada, ederrena, euskalgintzako erakundetan debatea egitea.

**Euskalgintzako eragileekin gogoeta partekatzea esan duzu. Eta herri erakundeetako ordezkari eta langileekin ez? Lehena berriz ere? Batzuk alde batetik, bestetzuk bestetik?**

Atal asko dago gizarte-erakundeei begira, baina gogoetak orokorrak dira. Langile publiko batzuk izan ditut gertuko irakurle. Agintari bat edo bestek ere esan

**«Joan dira berrogeita hamar urte: euskalgintzan gauzak nahiko sen onez eraikitzen; eta politikan, berriz, gauza batzuk nahiko sen txarrez egiten. Kar, kar...»**

dit irakurtzen ari dela, eta ondoren hitz egin nahi duela. Dena dela, liburuari ez diot gehiegi eskatzen, ez espero ere. Hainbatek aipatzen du «oraintxe dela momentua», baina bizi garen erritmoan —erakustokien eta hedabideen erritmo azkarra—, errebantea eta irrelebantea batera doaz gizarte honetan, saturazioan nahasita, eta liburu batek arreta mugatua sortzen du. Oro har, begirada luzeetarako patxada falta zaigu. Hiru plano aipatzen dira liburuan: ekintza; gorago, estrategia, eta, are gorago, etorkizun-ikuspegia edo bisioa. Eta azken honetan iruditzen zait lausoaldian gaudela, «nora goaz?» galde-

raren aurrean ez dago ipar argirik. Ortzi-mugak sumatzea eta hor amets doituak kokatzea komeniko da, bost hamarralditako ibilaldiari segida emateko.

**Gogoeta da *Hiztunpolisa*, eta ekintzaren aldarri.**

Ni lurralde horretakoa sentitzen naiz, neure mugekin. Liburuak hemezortzi kapitulu ditu, orri asko dira, baina paperik gabe idatzi dut, aipurik eta irakurketa-erreferentziarik gabe. Ordenagailu aurrean jarri, eta bota eta bota. Ekintzaren ibilian pilatutakotik. Liburuaren bigarren partea bereziki, azkeneko berderatzi kapituluak, arlokako estrategia eta ekintzen planoari dagozkio. Lurralde horretakoa naiz. Orain dela hamalau urte, bertsolaritzatik geratu nintzenez, erabaki nuen ekintzaren arloan ia erabat jardutea. Ematen du ekintzaren plano eta etorkizun ikuspegiarena bi mundu ezberdin direla —ideien mundua, batetik, eta ekintzarena, bestetik—, baina niretzat oso bat dira. Iruditzen zait ekintzaren planotik bisioaren planora, edo estrategien eta etorkizuneko ikuspegiaren planora kontrabandoan ibili beharra dagoela. Kontrabando muga horretakoa sentitzen naiz, ekintza itsua da estrategia gabe, eta estrategia hankamotza da etorkizun-ikuspegiarik gabe. Eta, alderantziz, ikuspegia ekoizten ibili behar duenak ere jakin behar du hankak lokatzetan edukitzea zer den. Biok oso lotuta daude.

**Gurean ekintzaille petoak ez ote garen. Zenbat eta zenbat ekitaldi euskal herrietan! Norabide bateraturik duten ezin jakin, ordea.**

Inguru ekintzazalea da hau, oro har. Jende mordo ari da lanean gure bazterretan, hainbat arlotan, hainbat estrategia txikitzen. Baina, gero, tarte handia dago, adibidez, idazleen geruzara. Idazleen eta zutabegileen ideia-produkzioa oso gandua eta urruna da euskalgintza organikoarekiko. Leizea dago. Ideia orga-



nikoak behar ditugu, ordea, *continuum* batean. Horretan kritikoa naiz, egia esan, gure hitz publikatuarekiko. Gure hitz publikatua urruti xamar dago, oro har, hankak lokatzetan sartuta dituen geruza horren desafioetatik. Eta hankak lokatzetan sartuta dituenak, gehienetan, etorkizuneko ikuspegia falta du azken aldian. Azken hauetan konfiantza gehixeago dut. Gonbidapen horixe egingo nioke ekintzan ari den jendeari, ustezko adituoi begira jartzen denean: «Pentsa-lariago izan behar duzue, asko dakizue, zeuek dakizue gai honetaz! Altxa begiratu goraxeago!».

### Ekintza horiek denak bateratu edo babestuko dituen «euritakorik» badu euskalgintzak?

Liburua ahalegin bat da «euritako» horretako haga batzuk zein izan litezkeen proposatzeko bidean. Hori ez da, jakina, ez liburu baten ez pertsona bakar baten lana, etorkizuneko askorena baizik. Momentu honi eraikitze berri hori dagokio. Joan dira berrogeita hamar urte: euskalgintzan gauzak nahiko sen onez eraikitzen, eta politikan, berriz, gauza batzuk nahiko sen txarrez egiten. Kar, kar... Hitz gutxitan, horixe da azken berrogeita hamar urte hauetako laburpena. Orain, beharbada, politika sen hobez kudeatzeko garaia da, eta, bestalde, plano sakonago batean, euskalgintzaren estrategiak, doinua, diskurtsoa, jarduna, eta abar eredu edo paradigma beregain batean bermatzeko aldia. Horixe izan liteke euritakoa, guztiontzat: Araban bertso eskola eraikitzen ari denarentzat, Errioxan euskaltegiari eusten, Alduden euskara elkarte moduko zerbait sortzen, Topagunean lanean ari denarentzat. Uste dut mezu hori gizarteari transmititu geniezaiokeela, hau da: «Honek badu taupada propio bat, doinu beregain bat, eta taupada horretan daude Arabako Errioxako euskaltegiko irakaslea, Bernardo Atxaga, eta Koldo Izagirre, eta Maialen Lujanbio, eta Ramon Etxezarreta».



### Patxi Baztarrika ere bai?

Jakina. Arlo sozialetik bezala arlo publikotik ari direnak, abertzaletasunetik bezala bestelako ideietatik dabilzanak. Bi tradizio abertzaleak izan dira XX. mendean euskara gehien aldeztu dutenak, baina inor ez dago hemen harrokerietan ibiltzeko moduan, eta, are gutxiago, euskaltzaletasunaren pedigria banatzeko edo ukatzeko moduan. Datozen hamarraldietan argiago helaraz geniezaioke gizarteari hori, euskararen ametsaren izaera zeharkatzailea, doinu autonomoa. Gizarteari –Barakaldoko langabetu gazteari eta Iruñeko kontserbadore girokoari– doinu hori transmititzeko gai baldin bagara, apur bat gehiago jakingo dugu non kokatu gizarte eragileak, alderdiak, erakunde

## «Inor ez dago hemen harrokerietan ibiltzeko moduan, eta, are gutxiago, euskaltzaletasunaren pedigria banatzeko edo ukatzeko moduan»

publikoak, proiektu politikoak, eta abar gai honekiko. Geruzak bereizi egin behar dira, bereizi eta lotu.

### Hor ari zara «geniezaioke», «baldin bagara»... Non da liderra, non da katuari zintzarria jarriko dion sagua?

Une honetan badira pertsonak, eta erakundeak, bide hau egiteko gaitasuna dutenak. Lehengo batean, antzeko galdera atera zen Topagunearen jardunaldietan, eta Iñaki Martínez de Luna eta Mikel Irizar nituen ondoan. Horixe dituzu bi –eta horiek bezala, beste hainbat– euskalgintzan hamarraldiak daramatzatenak lanean, sentsibilitate politiko ezberdinekin harremanak dituztenak, inoren teilape garbian egon gabe begiratu zabala frogatu dutenak, aldi berean, gehienen aurrean sinesgarritasuna dutenak. Mota horretako pertsonak egon behar dute euskalgintzako gizarterakundeen gidaritzan. Beraz, ideiak badaude, pertsonak ere bai, erakundeak ere bai. Egia da inertziak ere badaudela. Une honetan inertziak dira nagusi aparatuetan, eta iruditzen zait, horretan, urte asko gal dezakegula oraindik.

### Oraintxe, amaieran, desanimu hitz bakarra...

Kar, kar... ■

# Bitcoin, mundu digitaleko txanpona

IGOR LETURIA

INFORMATIKARIA ETA HIZKUNTZ TEKNOLOGIETAN IKERTZAILEA  
ELHUYAR FUNDAZIOA

**B**adira urte ugari dagoen diru gehiena eta egiten diren transakzio gehienak digitalak direna. Askoz gehiago dira bankuko datu-baseetan gordetako zenbakiak diru fisikoa (billete edo txanponak) baino, eta transakzio askoz gehiago egiten dira kreditu-txartelez edo Internetez eskudirutan baino. Hala ere, diru eta transakzio horiek guztiak dibisa tradizionaletan egiten dira, hau da, dolar, euro, yen eta horrelakoetan. Baina azken urteotan, sortu dira txanpon mota batzuk mundu digitala dutenak sorburu eta bizileku bakar. Horietako lehena (eta ezagunena) Bitcoin da.

## Bitcoin, lehen kriptotxanpona

Bitcoin txanpon digital bat da, hau da, modu elektronikoan sortu eta gordetako txanpon bat. Zehazkiago, kriptotxanpon edo kriptodibisa bat da Bitcoin. Kriptotxanponaren definizioa hau da: teknika kriptografikoak erabiltzen dituen txanpon sistema bat banatua, deszentralizatua eta segurua.

Sistema banatu eta deszentralizatua izateak esan nahi du ez dagoela entitaterik (banku zentralik edo gubernurik) dibisa horren atzean. Izan ere, kriptotxanponaren ideiarene sortzaileen arabera, txanpon bat erakunde jakin batek kontrolatzen badu, handitu eta mugatu dezake, bere interesen arabera, txanponaren jaulkipena, eta bestelako agente askori eragin. Kriptotxanpon bat, aldiz, inpartzialagoa da, bere jaulkipenaren kontrola modu deszentralizatu eta banatuan egiten baita, algoritmo eta software informatikoen bidez.

Era berean, txanpon tradizionalekin, erakunde jakin batzuek bermatzen dute (bankuek) pertsona baten diru kopurua eta transakzioen egiazkotasuna. Bankuen fidagarritasuna da sistema horren oinarria, baina baita puntu ahula ere. Kriptotxanponekin, berriz, modu banatuan eta software bidez egiaztatzen da diruaren eta transakzioen benetakotasuna.

Nola lortzen da sistema banatu eta deszentralizatua? P2P sare bat dago atzean, *peer-to-peer* edo berdinen arteko sare bat. P2P sareak ezagunak dira fitxategiak elkartrukatzeko erabiltzen diren sistemen-gatik, eMule eta BitTorrent bezalakoak. Sare horietan, hainbat ordenagailu daude software berarekin eta Internet bidez konektatuta. Eta sare horietatik fitxategiak jaisten ditugu, zatika-zatika ordenagailu ezberdinetatik, eta aldi berean guk ere gure fitxategien zatiak beste batzuei bidaltzen dizkiegu. Bada, kriptotxanponetan gauza bera egiten da: softwarea Internet bidez konektatuta dauden ordenagailu askotan dago instalatuta, eta guztien artean bermatzen dute diru jakin bat modu zilegian sortu dela, pertsona batek duen dirua benetan berea dela, edo transakzioa modu egokian egin dela.

Eta sistema segurua izan dadin, guztiaren oinarrian, esan bezala, kriptografia dago, informazioa zifratzeko eta deszifratzeko zientzia. Zehazki, gako publiko bidezko kriptografia edo kriptografia asimetrikoa. Izan ere, teknika hori erabiltzen da Interneteko elkarrekintza guztietan konfidentzialtasuna, autentifikazioa eta anonimotasuna bermatzeko (HTTPS protokoloan, sinadura digitalean...), eta teknika hori erabiltzen da kriptotxanponetan ere, horiek ziurtatzeko.

Bitcoin da kriptotxanponen lehen inplementazioa. 2008ko azaroan, Satoshi Nakamoto delako batek (bere benetako nortasuna ezezaguna zen martxoan *Newsweek* aldizkariak ezagutzera eman zuen arte) «Bitcoin: A Peer-to-Peer Electronic Cash System» izeneko artikulua argitaratu zuen webean. Bertan, gorago azaldutako kriptotxanponaren definizioa ematen zen, eta hori inplementatzeko protokoloa zehazten. 2009ko urtarrilean jarri zuen martxan Satoshi Nakamotok Bitcoin, Bitcoin bezeroa software libre gisa publikatuz, software hori instalatua duen sare banatua martxan jarriz eta lehen 50 txanponak jaulkiz.

## Bitcoin txanponen «meatzaritza»

Bitcoin txanponaren filosofiaren oinarria da, esan dugun bezala, inolako gobernu, banku edo bestelako erakundek haren jaulkipenean artifizialki eskua sartu ezin izatea, euren interesen arabera. Denboran zehar zenbat txanpon jaulkiko diren aurrez erabakita dago, eta Bitcoinen sare deszentralizatutako softwarean inplementatuta dago hori. Bitcoinen sorreran, 10 minuturo 50 txanpon jaulkitzen ziren (urtean ia 3 milioi txanpon), eta lau urtean behin, erdira jaisten da jaulkitze-erritmoa. Hala, txanponen kopurua asintotikoki 21 milioiko gehienezko kopurura hurbiltzen joango da denboran zehar.

Eta nori ematen zaizkio jaulkitzen diren txanpon berri horiek? Txanponak lortzeko, lan bat egitea eskatzen da, «meatzaritza» deitzen diotena (*minning* ingelesez), urrea aurkitu edo lehengairen bat erauzteko lana bailitzan. Txanpon digital batentzat, nola ez, lan hori lan konputazionala da: Bitcoin sareak problema kriptografikoak planteatzen ditu, hauen zailtasuna unean jaulki behar diren txanponen kopuruari, unean dagoen txanpon eskaeren kopuruari eta garaiko ordenagailuen ahalmenari egokitzen zaizkion; software «meatzariak» hori ebazten saiatzen dira, eta ebazten dutenei ematen zaizkie Bitcoinak. Beraz, zenbat eta ordenagailu gehiago eta ahaltsuagoak, aukera gehiago Bitcoinak lortzeko.

## Nola erabili Bitcoin

Bitcoin erabiltzeko, software bezero osoa instala dezakegu, Bitcoin sare banatuko parte izango dena eta jaulkipenak jende guztiaren diru kopuruak eta transakzioak kontrolatuko dituen. Horrek software «meatzaria» ere badakar, Bitcoin berriak lortzen joateko (hala, zenbat eta gehiago lagundu Bitcoin sareari, txanpon berri gehiago lortzen dira). Baina Bitcoin erabiltzeko modu normalena software bezero arinago bat instalatzea da, norberaren diru-zorroa kudeatzeko eta berarekin or-

daintetarako edo kobrantzak egiteko soilik balio duena, horretarako Bitcoin sareko nodoetara konektatuko dena.

Bitcoin diru-zorroen kudeaketarako programa asko daude: ordenagailuetarako programak (Electrum, Multibit...), telefono mugikorretarako app-ak (Bitcoin Wallet, Mycelium...) edo Interneteko nabigatzailean exekutatzeko web aplikazioak (Coinbase, MyWallet...).

Programa horietan gure diru-zorroa sortuko dugu. Diru-zorroa sortzean, kriptografia asimetriko gako pare bat emango zaigu, publikoa eta pribatua. Gako publikoa gure diru-zorroaren identifikatzailea izango da, zeina saldo batekin lotuta egongo baita sarean, eta jendeari emango diogu dirua eman behar dugunean. Gako pribatua, aldiz, gure gordetzeko da, eta, ordaintzak egiterakoan, gure burua autentifikatzeko balio du. Besterik ez dugu behar Bitcoin erabiltzeko. Gure saldoa, transakzioen historia eta beste guztia Bitcoin sarean gordetzen da modu banatuan, eta diru-zorroko softwarearen eta gure gako pribatuaren bidez atzitu dugu.

Bitcoinak lortzeko, software «meatzaria» erabili ezean, badituen norbaiti erosi behar dizkiogu beste txanpon batzuk erabilita (dolarrak, euroak...). Erosketa hauek egiteko web zerbitzuak daude, eta baita kuxazain automatikoak ere toki batzuetan. Bitcoin bidezko ordaintsuetan dagoenik, gero eta toki gehiagotan onartzen dituzte. Hasieran, weba eta Internetekin lotutako zerbitzuak ziren nagusiki (webguneen ostatatzeak, online apustuak...), baina gero eta bestelako zerbitzu gehiago ordain daitezke Bitcoin bidez.

## Etorkizun zalantzatsua

Bitcoin bere helburuak betetzen ditu kasu askotan. Adibidez, AEBko Gobernuak Wikileaks-i debekatu zionean laguntza ematea kreditu txartelen enpresei, Bitcoin izan zen beraiei laguntzeko modu bakarra. Eta bere sorreratik iagoera bidean

ari da Bitcoin. Gero eta jende gehiagok erabiltzen du. Gaur egun 12 milioitik gora Bitcoin daude, eta oso altu kotizatzen dira: artikulua hau idazteko unean, Bitcoin bakoitza ia 700 dolarrengatik aldatzen da!

Hala ere, aldatu izan da 1.100 dolarrengatik gora ere; oso txanpon ezegonkorra da, beraz. Izan ere, erabilera komertzial erreala oso txikia du, erabilera inbertsore eta espekulatioarekin konparatuz gero.

Bere arriskuak ere baditu. Lapurretak gerta daitezke, eta gertatzen dira. Gako pribatua eskuratzea lortzen bada, kontuaren kontrol osoa lortzen da. Adibidez, otsailean, Mt. Gox Japoniako Bitcoin truke-enpresa hackeatu zuten, eta bere bezeroen gako pribatu guztiak eskuratu zituzten. Existitzen diren Bitcoin guztien %7 inguru lapurtu zituzten! Gako pribatua galtzea ere gerta daiteke, eta diru guztia galtzen da, erremediorik gabe. Azken finean, txanpon hain banatu eta kontrolatu gabea izaki, kontsumitzaileak babes gabe daude, ez baitago bermerik emango duen erakunderik atzean. Bere funtsa eta abantaila nagusia oztupo ere izan daiteke kasu batzuetan.

Bestalde, herrialdeetako gobernuak ere zein jarrera hartuko duten ikusteko dago. Esate baterako, AEBk onartu du Bitcoinaren erabilera, aldiz, Txinak eta Tailandiak debekatu, eta beste herrialde gehienek ez dute ezer erregulatu oraingoz.

Azkenik, Bitcoinaren beste arrisku bat da Interneteko enpresa handi batek (Amazon, Google...) edo onlineko ordaintsuetan enpresa handi batek (PayPal, Visa...) berekiko transakzioetarako kriptotxanpon propioa ateratzea. Hala, kriptotxanpon horrek segituan jendearen onarpen eta arrakasta handia izango balu, Bitcoin bazar gelditzea ekarriko luke horrek.

Dena dela, zalantzarik ez dago kriptotxanponak modan daudela, Bitcoin gain, beste asko ere baitaude: Litecoin, Dogecoin... Denborak esango du Bitcoin edo beste kriptotxanponen bat eguneroko bihurtuko zaigun. ■

# Ohitura ala adikzioa?

MAITE ORUE

TESTUA ETA ARGAZKIAK

**A**dituek diotenez, adikzioen historia gizakienarekin lotuta dago, eta drogaren erabilera gizakia bera bezain zaharra da. Alkohola edatea, kokaina-hostoak mastekatzea, kalamua erretzea, edabeak hartzea, eta abar dira historian zehar gizakiak baliatu izan dituen ohitura batzuk. Horietako zenbait gorde egin dira mendeen joan-etorrian, baina berriak ere sortu izan dira; batik bat, aldaketa sozialak tarteko.



Azken hamarkadetako ezaugarri nabarmenetako bat da gizarteak aldaketa esanguratsu eta azkarrak bizi izan dituela, eta aldaketa horiek guztiek ohitura berri batzuetara bultzatu gaituzte. *Adikzio* hitza entzutean, alkohola, tabakoa edo substantzia kimikoak datozkigu gogorra lehendabizi. Hala ere, egun, gero eta gehiago dira adikzio sozial edo psikologiko terminoekin lotzen ditugun jokarak: sexuarekiko grina, erosketa konpulsiboak, bigorexia, joko patologikoak, telefono mugikorra, Internet eta bideo-jokoak neurri gabe erabiltzea, eta abar.

Jokabide horiek ustezko menpekotasun sozialak dira etengabe errepikatzen direlako baina, berez, ez dira kaltegarriak. Izan ere, noiz bilakatzen da ohitura bat adikzio? Jokaera bat adikziozkoa dela esateko, hiru ezaugarri bete behar dira: tolerantzia (emozio berbera lortzeko, gero eta gehiago kontsumitzeko premia), abstinentsia-sindromea (hartzeari utziz gero, aldaketak izatea nerbio sisteman) eta kontrola galtzea (kontsumoa gelditzeko ezintasuna). *DSM-IV*ak (AEBetako Psikiatria Elkartearen buruko desordenak diagnostikatzeko irizpideak biltzen dituen manuala) substantzia kimikoen menpekotasunari soilik ezartzen dio *adikzio* terminoa, eta kontrolaren desorekatzat jotzen ditu aipatutako jokabideak.

## INTERNET-ADIKZIOA

Askoren iritziz, bestalde, Internetek lotura handia dauka jokabide horiekin, guztia esku-eskura jartzeko ahalmena daukalako, eta, ondorioz, adikzio berrietarako atea zabaltzen duelako. Halaber, Internet-adikzioari buruz ere mintzatzen gara han eta hemen, baina zilegi al da sarearekiko menpekotasunaz hitz egitea? Zuzena al da aipatutako ohitura horiek guztiak menpekotasuntzat hartzea?

Helena Matute Deustuko Unibertsitateko Psikologia katedradunaren iritziz,



ez da teknologia berriekiko menpekotasunik existitzen, eta agertzen diren arazo psikologiko guztiak «sarearen *zakuan* dena *sartzea* Ediporen konplexuaren arabera adierazten zen garaira itzultzearen antzeko zerbait» izango litzateke. Matutek dio oso zaila dela Interneten erabilerazuzena zein izan beharko litzatekeen zehaztea, ezin baitaiteke neurtu sarean ematen dugun ordu-kopuruaren arabera. «Sarean ordu asko emateak ez du esan nahi arazo bat dagoenik; esate baterako, adieraz lezake aspertuta egondako norbaitek plan hobea aurkitu duela, besterik gabe. Menpekotasunak ez dira zehazten denboraren arabera».

Matuteren arabera, «askoz gauza serioagoa» da menpekotasun bat izatea. «Kirol adikzioaren, irakurtzeko adikzioaren, telebistarekiko adikzioaren edo Internet adikzioaren sintomatologiak ez dauka zerikusirik benetako adikzio batek agertzen duenarekin. Edari alkoholduinak edo nikotina, adibidez, hartzen jarraitu behar izatera eramaten zaituzten substantziak dira, gorputzari kalte egiten dioten arren. Gainera, telebistaren edo

Interneten kasuan ez bezala, menpekotasun horiek ez dira berez sendatzen. Bereizi beharra dago».

Matutek ez du ukatzen Interneten erabilerak arazorik sor ezin dezakeenik, baina hortik adikziora «tarte handia» dagoela dio. «Egia da eginkizun batean ordu ugari emateak beste batzuetan erabiltzen duguna murriztea dakarrela nahitaez eta horrek, batzuetan, arazoak ekar ditzake». Izan ere, sasoi batean etxean genituen hainbat tresna, gaur egun Interneten dauzkagu: musika, liburuak, telebista, eta abar. Ondorioz, lehen egiten genituen gauza berberak egiteko, Internet erabiltzen dugu gaur egun. «Garai batean, lagun batekin hitz egiteko telefonoa erabiltzen genuen; orain, berriz, txat bat erabil dezakegu, baina absurdua da esatea pertsona batek teknologia berriekiko adikzioa daukala, lagunekin txat bidez hitz egiten duelako, edo sarean irakurtzen duelako».

Orduan, noiz gerta daiteke Internet kaltegarri? Matuteren ustez, Interneten emandako denborak «mina eragiten duenean» sor daiteke arazoa, norberaren

aurka datorrenean, alegia; esaterako, lagunak aurrez aurre ikustea oztopatzen duenean, edo familiarekin egoteko eragozpen direnean.

Nolanahi ere, kasu bakoitza sakon aztertzearen aldekoa da Deustuko Unibertsitateko Psikologia katedraduna, pertsona horrek bestelako arazo bat izatea gerta daitekeelako. «Adibidez, bikotearekin garai txarra pasatzen ari den batek ordu asko eman ditzake Interneten, baina, zein da beraren arazoa, Internet ala bikotearekin duen harremana?». Beraz, Matutek dio lehenbizi pertsona bakoitzaren arazoa identifikatu behar dela, eta nabarmendu du sarearekin benetako arazoa daukaten egiaztatutako kasuak «oso-oso gutxi» direla.

### JOKOA, MODERAZIOZ

Internet-adikzioa ez bezala, ludopatia badago Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean. Jokoa, alabaina, ez da kaltegarria, Deustuko Unibertsitateko Psikologia Sailean lan egiten duen Ana Estevez doktorearen arabera. «Kontrara, zenbait pertsonarentzat ona izan daitekeen jokabide ludikoa da, eta moderazioz ez da galgarria». Horrenbestez, Estevezaren arabera, zenbait baldintza bete behar dira pertsona batek jokoarekin arazo bat edo adikzioa daukala esateko. «Pertsona batek joko-adikzioa daukala esaten dugu jokatzeko grinari eutsi ezin diezaiokenean, nahiz eta geratzeko gogoia izan; jokora gero eta denbora eta diru gehiago bideratzen dituen; eta, batez ere, horrek guztiak bere egunerokoa normaltasunez bizitzea eragozten dionean».

Izan ere, joko patologikoak hainbat ondorio txar izaten ditu. Ekonomikoa izan ohi da nabarmenena edo ageriena, jokotik eratorritako diru-galerak handiak izan daitezkeelako, eta horrek zorretan itotzeko arriskua erakar dezakeelako. Dena den, adikzioa duenak galera pertsonalak ere izan ditzake, jokatzan dabilela ezkutatzeko, gezurren zurrunbilan



sar daitekeelako. Estevezaren esanetan, «jokoa izaten da pertsona horrek egin nahi izaten duen aktibitate bakarra, eta, ondorioz, besteekiko harremanak asko hondatu ohi dira». Horri, gainera, ludopatiatik eratorritako sintoma psikologikoak erantsi behar zaizkio; depresioa eta antsietatea, kasurako.

Teknologia berriek edo kirol apustuak egiteko etxeen hazkundeak nabarmen eragin diote joko patologikoen problematikari. Internetek, esaterako, «jokoa arazo bihurtzeko aukerak areagotzen» ditu –Estevezaren iritziz– «jokatzeko erraztasun handiak eskainiz eta apustuatarako aukerak hurbilago jarritz». «24 orduz eskura daude, eta, beraz, une oro daukagu jokatzeko aukera. Ondorioz, errazago

«engantxatu» gaitzke». Kirol apustuei dagokienez, Psikologia doktoreak aitortu du eskaria handia dela, baina ez da, ordea, mugak jartzearen aldekoa. «Jokoak, zenbait kasutan, arazoak sor ditzakeela kontzientziaraztean datza gakoa. Jendea hezi egin behar da, eta jokoa neurrian erabil daitekeela zabaldu».

Hari horretatik, prebentzioaren garrantzia aipatu du Estevezek, eta indarrak gazteengan jarri beharko lirakeela nabarmendu. Izan ere, «estadistikek diotenez, joko patologikoa pairatzen duten askok onartzen du nerabezaroan hasi izana jokatzan». Ludopatiaren kasuan bakarrik ez, bestelako problematika batzuen aurrean ere gazteak zaurgarriagoak direla uste du Estevezek, eta, beraz, prebentzioan eragitea ezinbestekoa dela dio.

Beste menpekotasun batzuekin gertatzen den bezala, ludopatak eman beharreko lehen pausoa da arazo bat daukala onartzea. Estevezek gogora ekarri du, egon badaudela jokalariei laguntzeko elkarteak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan; hurrenez hurren, Ekintza Dasalud, Ekintza Aluviz eta Asajer. «Norbaitek jokoarekin arazoa izan dezakeela iritziz gero, beraz, elkarte horietara jotzea izango litzateke egokiena».

Asajerrek, adibidez, 25 urte daramatza ludopatei laguntza eskaintzen. Ana Herrezuelo da Gasteizko Alaba Jeneralaren kaleko 25ean egoitza daukan elkarteeko psikologoetako bat, eta, jokoaz mintzatzerakoan, Estevezekin bat etorri da: «Jokoa jokabide sozial bat da, arazo bihurtzeko baina osagai ludikoa galtzen duenean. Hortaz, erabiltzen jakin behar da, eta modu seguru eta arduratsuan jokatu».

Etimologikoki, *ludopatia* hitzak «jokoaren gaitza» esan nahi du, eta dirua jokatzan den apustuak dituzten jokoekin erlazionatu ohi da. Esan bezala, diru-galera handia izaten da ludopatiak eragiten duen ondorioetako bat. Dena den, ondorio ekonomikoez gain, bestelako kalte batzuk ere

## MIREN DORRONSORO

Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria - Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza



### Zer dakigu substantziarik gabeko mendekotasunen inguruan?

Fenomeno berri batez ari gara, eta komunitate zientifikoak berak ere ez dauka ikuspuntu komunik gaiaren inguruan. Ebidentzia zientifikoari jarraiki, eta buruko gaixotasunen nazioarteko sailkapenak kontuan hartuz, soilik joko patologikoa hartzen da gaixotasuntzat. Baina, hainbat adituren ustez, badago mendekotasun-profil berri bat, substantziarik gabekoa.

### Eusko Jaurlaritzak ba al dauka programa bereziren bat horiei aurre egiteko?

Datuak biltzeaz gain, adituen iritzia eta inplikazioa bilatzen ari gara, gai hau eztabaida-agendan jartzeko. Horrez gain, hainbat erabaki adierazgarri hartu ditugu.

Lehen arlo honetako planak Drogamenpekotasunen Planak ziren. Baina azkena, aldiz, indarrean dagoena, Adikzioen Plana da. Eta bertan zehaztutako lerro eta ekintzen artean joko patologikoa dago.

Aurkeztu berri den Osasun Planean ere badira zenbait helburu eta ekintza honelako jokabideak prebenitzeko.

Beste aurrerapauso bat komentatu nahiko nuke. Eusko Jaurlaritzak Euskadi eta Drogak inkesta erreferentziatzko ikerlana kaleratzen du bi urterik behin. Azken edizioan, lehenengo aldiz, Interneten gehiegizko erabilera eta joko patologikoa aztertu dira.

### Adikzioen lege berri bat egingo zuela iragarri zuen Eusko Jaurlaritzak iaz. Lege berri horrek aintzat hartuko ditu substantziarik gabeko adikzioak?

Bai, hala da. Lanean ari gara hilabete batzuk barru adikzioen lege aurregitasmo berria aurkezteko. Adikzioak ikuspuntu zabalago eta globalago batetik tratatu nahi ditugu, adikzio klasikoak eta egoera berriak bilduz.

### Prebentzioa ezinbestekoa al da?

Bai, noski. Baina ez bakarrik mendekotasun-jokabideei aurre egiteko; ohiko adikzioei aurre egiteko orduan ere bai. Azken 25 urteetan, adikzioen arloko hainbat lege onartu dira Euskadin, eta guztietan azpimarratu da prebentzioaren garrantzia.

### Zer egin dezakete gurasoek seme-alabak substantziarik gabeko adikzioetatik babesteko?

Familia hezkuntza emateko eta gizarteratzeko eragile garrantzitsuena da, adin goiztiarrenetatik pertsona guztiongan duen eragina dela eta. Adin goiztiarrenetan eratu eta finkatzen dira nortasunaren elementu gehienak, eta ongi eraikitzen baldin badira, babes-faktore izango dira.

### Zeintzuk dira arazoa izan dezakeen pertsona batek jarraitu beharko lituzkeen pausoak?

Azken 25 urteetan, laguntza-sare publiko eraginkorra, dibertsifikatua eta profesionalizatua eratu da osasun eremuan, gizarte-zerbitzuetan eta arlo soziosanitarioan. Prebentzioaren arloko lanak egiten ditu, osasuna sustatzen du, eta pertsona lagundu eta gizarteratu daitezen ahalegintzen da. Eta, noski, laguntza integral eta integratua eskaintzen die adikzioekin arazoak dituztenei zein euren senideei. Gainera, zenbait elkartek eta irabazteko asmorik gabeko entitatek eskaintzen duten laguntzarekin osatzen dira baliabide publiko horiek.

Arazoa izan dezakeen pertsona batek dagokion osasun-zentroan edo gizarte-zerbitzuetan izango du laguntza, edo argibideak emango zaizkio behar bezala bideratzeko.

eragiten dituela azaldu du Herrezuelok. «Pertsona batek jokatzearen gaineko kontrola galtzen duenean sortzen da arazoa: jokia uzteko zailtasunak dauzkanean; alde batera uzteko ahaleginak egin arren, huts egiten duenean». Hortaz, arazoa sortzen da pertsona batek portaera jakin bat behin eta berriz errepikatzeaz uzteko ahalmenik ez daukanean.

Horrek, ezinbestean, «gaixoaren egunerokotasuna oztopatzen» du. Izan ere, arazo bihurtzerakoan beste gauza batzuk egiteko denbora murriztu ohi du. «Lagunekin eta senideekin izandako harremana narriatu egiten da, lanean arazoak sortzen dira, isolatzeko arriskua areagotzen da, eta abar». Azken finean, «bizitzaren arlo guztietan dauka eragina» ludopatiak, «gaixoak uste baitu jokotik kanpo ez dagoela ezer».

### ADIKZIO BERRIAK

Halere, ludopatiak harago, bestelako arazo batzuetan edo bestelako «adikzio psikologiko batzuetan» ere jarri dute arreta Asajer bezalako elkarteek azken urteetan. Ana Herrezuelok azaldu duenez, joko patologikoa pairatzen zutenak artatzeko jaio zen Asajer, baina, gizartea eraldatuz joan denez, eskaintzen dituen zerbitzuak ere zabalduz joan dira. «Hasiara batean ludopatian zentratzen ginen, baina, gerora, beharrian berriak sortu diren heinean, bestelako adikzio batzuk ere artatzen hasi gara; bideo-jokoena, teknologia berriena, erosketa konpultsi-boena...».

Dozenaka boluntarioz gain, hiru psikologo eta gizarte langile bat daude beharrian Asajerren, eta helburu daukate arazo zehatz bat daukatenei laguntzea ez ezik, prebentzioan ere eragitea. Hala, gazteei zuzendutako programa bi garatu ditu Arabako elkarteak, Gasteizko Udalarekin lankidetzan: bata, *Egin apustu zure osasunaren alde: Joka ezazu seguru*, eta, bestea, *Errealitate birtuala: teknologien erabilera egokia*.



Izan ere, Estevezek esandakoarekin bat eginez, Herrezuelok esan du umeen eta gazteen artean prebentzioa lantzea ezinbestekoa dela, «asko eta asko nerabezaroan hasten baitira jokatzeko». Hori dela eta, gazteen artean, «joko osasuntsu eta mesedegarriaren aldeko mezuak» zabaldu behar direla deritzo.

Bestalde, uste du adikzio iturri zein baliabide soil izan, teknologia berriek kezka handia sortu dutela, batez ere gazteei dagokienez. Facebook, Tuenti edo bestelako sare sozialek urte gutxi batzuk baino ez daramatzate gure artean, eta, batik bat, gazteengan sustraitu dira.

Garai batean gazteen astialdian telebis-tak zuen tokia hartu du ordenagailuak, eta, gainera, adingabeak traba barik sar daitezke sare sozialetan. Horrek, zelan ez, gurasoengan kezka sortu duela azaldu du Asajerreko kideak. «Makina txanpon-jaleetan jokatzeko ezinbestekoa da taberna batera jotzea, eta, kasu horretan, ezin daiteke saihestu jendeak jokatzeko ari zarela ikustea. Kontrara, Internetek anonimotasuna mantentzen laguntzen du, ordenagailuaren edo telefonoaren bidez joki baitezakezu, inork zertan ari zaren jakin gabe». Herrezuelok dio sarean harrapatuta dagoenaren familiak «asko sufritzen» duela, «bizikidetzan eragin handia» baitauka. «Arazo horrek muturreko egoeretara eramaten ditu familiak».

Adikzioa edozein izanda ere, gaixoarentzat ez da batere erraza izaten laguntza eske joatea; are gutxiago, menpekotasuna

duena emakumea denean. Ez da gauza berria: ludopatia arazoa duten gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa da, eta gizonen % 80-% 90 inguru tratamendua jasotzen duten artean, emakumeen % 10 baino ez dira laguntza eske joaten. «Gainera, emakumeek ez dute senideen laguntza bera izaten, arazoari aurre egiterako orduan»; horri gizartearen epai morala gehitu behar zaio, ez baita berdin ikusten jokoarekin arazoa duen gizon bat edo emakume bat. Emakumea askoz ere okerrago ikusia dago, eta, estigma horren ondorioz, zailtasun handiagoa izan ohi du laguntza bilatzeko.

Menpekotasunen eta haien ondorioen fenomenoa aldarokorra dela eta, «menpekotasunei buruzko araudia ikuspegi gaurkotuago batetik» heltzeko beharra ikusi du Eusko Jaurlaritzak, eta indarrean dagoen agintaldian menpekotasunei buruzko lege-proiektu bat aurkeztu behar dutela jakinarazi zuen iaz Osasun Sailaren Osasun Publikoko zuzendari Miren Dorransorok. Lege-proiektu berriak, besteak beste, helduko die «alkoholdun edarien sustapen, publizitate, salmenta eta kontsumoari buruzkoei, substantziarik gabeko menpekotasunei eta menpekotasunak laguntzen dituzten portaerei edo *cannabis*aren klub sozialak izenekoei».

Bien bitartean, 2015era arteko indarrean dago iaz onartu zuten Mendekotasunen VI. Plana, zeinak Eusko Jaurlaritzak agintaldi honetan jarraitu beharreko ildo nagusiak biltzen baititu. ■



# Sophie Kaletik

ALAINE AGIRRE

IDAZLEA



**H**utsik sentitzen nintzen, nire barruko paretan kontrako oihartzuna deiadarka entzuten nuen; tinpanoetan dardarka, bihotzean taupadaka. Kalera irten nintzen; bakeroen azpitik kulero barik, baina kalera. Helmugarik barik hasi nintzen ibiltzen, nora ezean, nire pausoak zorabiatzen hasi ziren arte, errusiar mendian baleude bezala. Gelditu egin nintzen. Eta lehenengo aldiz arratsalde hartan, soa nire oinetako higatuetatik altxatu, eta ingurura begiratu nuen. Munduari begiratu nion.

Hiriko erritmoaren inertziak eramanda bezala zihoan jendea abiada batean aurrerantz, atzerantz, diagonalean, ezkererantz... Ni erdian: bihotzean. Neure barruko galerna propioaren grabitate-zentroan.

Hari eta besteari eta beste hari ere begiratzen hasi nintzen: aitak eskutik oratuta narras zeraman umeari; arratsaldea izan arren eskuan periodikoa eta ogia zeramatzan gizonari; eserleku batean, liburu bat irakurtzen zegoen irakurle gosetiari; yogako klasera ia korrika zihoan ile zuridun amonari; maitasun pixka bat eskatzen ari zen eskale/maitaleari; bizikleta gainean aterkiarekin zihoan emakumeari; kaletik

zebilen jendearentzat iluntze baten koloreak deskribatzen zituen itsuari...

Halako batean, ile gorridun neska bati erreparatu nion. Gabardina bat zeraman, belauen parerainokoa. Haren gerrialdeko lokarriak nola estutzen zituen begiratu nion arretaz; nola marapilatzen zituen bata bestearekin, lokarriak elkarrekin amodioa egitera gonbidatuz, eta horrenbestez, munduan osterago sortuko zen maitasun iraultza hari hasiera emanetz. Horrela, nahigabekeriaren nahiaz, konturatu ere egin gabe; ondoren bere oihartzunetan handituko zen keinu txiki batekin.

Gabardinaren paparreko azken botoia lotu, bufanda-sugea eztarrian ondo kiribilkatu, aterkia ireki, eta kalean zehar joan zen. Une batez geldirik lotu nintzen: zer egin ez jakitearen ezinegonak hartuta. Pauso bat eman nuen neska joan zen biderantz, baina beste bat atzerantz berriz ere:  $(+1-1 = 0)$ . Nire barruan, haren atzetik joateko desioa alde batetik, eta sen ona, bestetik, sokatiran zebiltzan jolasean. Ez dakit zergatik, baina supituki, haren bizitzaz jakiteko desioa eta nahia eta beharra sentitu nituen, guztiak batera neure barruan dantzan. Eta or-

duan, pentsatzeari uzteko botoia *offean* jarri, eta atzetik joan nintzaion.

Lehenengo pausoak azkar eman behar izan nituen, duda-mudatan egondako denbora berreskuratzearren. Jendetzaren artetik nindoan, korrontearren kontra igeri eginez, olatuak irentsiz. Halere, laster ikusi nuen haren ile gorria urrunean, aurreraka beti, zalantza izpirik erakusten ez zuen ibileraz.

Horrela hasi zen kontua. Gabardinaren lokarriak nola lotzen zituen ikusiz. Eta nola jarraitu, egunak gauari jarraitzen dion era berean gertatu zen; denboraren ardatz kartesiarrean aurrera egin bitartean, hari segika nindoala. Eta atzetik eta atzetik eta atzetik.

Banekien non bizi zen; bertan itxaroten nion goizetan, eta ataritik irtetean, jarraitu egiten nion, eta behatu: biologoak intsektuak nola, bada, hala. Eta horrela, beraren ohiturak ikasten hasi nintzen.

Konturatu nintzen ogia erosterakoan opiltxo bat erosten zuela beti. Harrigarriena da opilarekin egiten zuena: kaletik zihoala pertsona bat aukeratu, edozein, dela txapel bat daraman norbait, dela euririk egin barik aterkia irekita daroan norbait, eta opila oparitzen zion, eta entzun

ezin nituen hitz batzuk esaten zizkion. Entzun ezin nituenak, baina bai nire barruko unibertsoan irudikatu: imajinatzen nuen ile gorridun eta gabardinadun neska opila emandako pertsonari azaltzen maitasun iraultzaren sintoma bat besterik ez zela opari hura, ez ei dago kalean aurkitutako edozein ezezaguni «maite zaitut» esatea bezalakorik. Har zitzala nahi beste opiltxo marrubi zapozeko, har zitzala nahi beste «maite zaitut»; behar beste.

Martitzenetan merkatura joaten zen, sagar gorriak erostera (ez berde, ez hori). Agian sagar-tarta bat egingo zuen, eta kanela botako zion, eta horrela bere sukaldeko azuleju azulak kanelaren horitasunaz berdatu egingo ziren, urdinak eta horiak amodioa egitean bezala (maitasun-iraultzaren bigarren zantzua); edo bestela, sagarrak kolekzionatuko zituen, astelehenetan, kafetegietan lapurtzen zituen koilaratxoak bezala. Eraikuntza-lan batetik ere, eguen batean, adreilu bat ostu zuen. Domeketan txupatxusak miatzatzen zituen. Eta hori guztiori, astelehenetik domekara, gabardina soinean zuela.



Alabaina, ohitura harrigarrienen artetik harrigarriena, harri eta zur utzi eta ustekabeen harrapatu ninduena, hauxe izan zen: kaleko norbait ausaz aukeratu, eta hari segika hasten zen, betaurreko ilunak eta txapela jantzita. Ni neu egunetan berari egiten ari nintzaiona ari zen egiten beste batzuei. Edonora joaten zen edonoren atzetik. Haien etxeetaraino segika; helbidea apuntatu, eta ondoren, Posta bulegora joan eta gutun bana bidaltzen zien: ez dakit baina zer zegoen gutunazal haien sabeletan. Baina imajinatzen nuen barruan partitura zatiak egongo zirela, supermerkatuko tiketak, egunkarietako albiste pusketak, edo, agian, eta soilik agian, maitasun-iraultzaren hirugarren seinale ziren amodiozko gutunak. Halako batean, eguazten batean, galdu egin nion arrastoa. Ez nuen ikusten ogia eta opilak erosten, ez nuen aurkitzen martitzenetan merkaturan sagar gorriak eros-

ten, ezta astelehenetan kafetegietan eta eraikuntza-lanetan kleptomaniaren betebeharrak asetzen ere. Galdu egin nuen.

Nire barruan tristuraren zizarea neukan barruko erraiak jaten, ertzak karrakatzten. Segundoek eta hatsek zentzua galdu zuten. Egunak eta hilabeteak pasatu ziren errutina grisegi batean; erlojuak eta egutegiak aurrera joateaz nekatuegi zeuden, eta greban hasi ziren. Horrela, denboraren gatibu bihurtu nintzen, arnasa hartzea galarazita banu bezala. Harik eta bariku batean, buzoia ireki, eta gutunazal hura topatu nuen arte. Aurrealdean, ezagutzen ez nuen letraz nire izen-abizen eta helbideak ageri ziren; atzealdean, inoiz entzun gabeko izen bat: Sophie Kale. Irri batek barre egin zuen nire aurpegian. Gutunazala ireki, eta barrukoa irakurri nuen:

«Amaiera guztien ostean datorrelako hasiera oro». ■

# Ariketak84

**I. Testu honetako hamar hitz oker idatzita daude Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua*-ren arabera. Identifikatu eta zuzen itzazu:**

Musika klasikoak jasotzen dituen dirutza publikoen defenditzaile gisa ageri da azken aldian, edozein gaiz mintzatzen hasten diren lagunarteko afalosteetan. Prezeski, horretaz gogoratu da antzokiko bazkide-karneta erakutsi duelarik sarrerako leihatilan.

Aretoaren erdialdeko aukeri batean eseri orduko programa irakurtzen hasi da. Lehenengo obraren izena irakurtzeak irribarre bat piztarazi dio: zenbat denbora Schubert-en *Amuarraina* kintetoea entzun gabe. Senadore kargua utzi, eta gabine-tea ireki zuen dina urte izango dira.

Aldamenean eseritako bikotearen solasak eten dizkio oroitzapenak. Nonbait medikuak dira biak, edo erizainak behinik: digeriketa, drain edo kirofanoa hitzak deskodetu ahal izan ditu haien solasalditik.

**2. Lotu hitz bakoitza bere sinonimoarekin:**

<b>a</b>	zanpatu	keinuka	
<b>b</b>	atzitu	tragoa	
<b>c</b>	balioetsia	baliozkoa	
<b>d</b>	imintzioka	itxi	
<b>e</b>	mizkeria	zapaldu	
<b>f</b>	zurruta	aukera	
<b>g</b>	hertsi	gehienetan	
<b>h</b>	birrindu	desegin	
<b>i</b>	aldarte	atzeman	
<b>j</b>	eskuarki	zigortzailea	
<b>k</b>	zehatzailea	bigunkeria	

### 3. Aukera ezazu taulako hitzetatik definizio bakoitzari dagokiona:

- a. Zerbaiti buruzko ziurtapena eman. \_\_\_\_\_
- b. Interes, iritzi edo jarrera kontrajarriak dituzten aldeen arteko tirabirazko egoera. \_\_\_\_\_
- c. Zor edo betebehar ekonomikoak betetzeko ahalmen edo gaitasuna. \_\_\_\_\_
- d. Inoren mende ez dagoenaren egoera. \_\_\_\_\_
- e. Hats-hartze sakon bati jarraitzen zaion arnasbotatze nabaria, neke, oinaze, tristura, eta abarren adierazgarri dena. \_\_\_\_\_
- f. Lan edo ideia baten gune garrantzitsuena. \_\_\_\_\_
- g. Nonbait edo zerbaitetan kanpo-elementu bat itsatsi edo tartekatu. \_\_\_\_\_
- h. Zerbait egiteko araua, epai edo erabaki baten oinarria. \_\_\_\_\_
- i. Lege edo erabaki judizial batek erregulatutako puntuetako bakoitza. \_\_\_\_\_
- j. Zerbait egokitu, atondu, moldatu. \_\_\_\_\_

ardatz	bermatu	hasperen	
gatazka	txertatu	beregaintasun	xedapen
irizpide	kaudimen		taxutu

### 4. Puntuazioaren gaineko hainbat arau eta gomendio azaldu dizkigu Juan Garziak ale honetako eta aurreko aleko Gramatika atalean. Horiek kontuan izanda, jarri puntuazio-zeinuak esaldi hauei:

- a. Errioxako ardoa sor marka duen ardoa da Errioxako Nafarroa Garaiko eta Arabako hainbat upeltegitan egiten dena Iberiar penintsulako hoberenatarikoen artean dugu eta aspaldi honetan mundu osoan ere ospetsu bilakatu da
- b. Aurten ohi baino beranduago ekingo diote mahats biltzeari Arabako Errioxan haren aurretik egin ohi duten ardoaren jaia hala ere betiko datan egingo da bihar izango da Villabuenan

- c. Bengoetxeak eskuin orkatilako peroneko maleoloa hautsi du eta ebakuntza egitekoak ziren Gasteizen Leitzako aurrelariak igandean hartu zuen min mendian entrenatzen ari zela zangoa zulo batean sartuta
- d. Gu azokara joan ginen eta Miren eta Pello tabernan geratu ziren
- e. Hizkuntz eskakizunetako probetan hainbat azterketarik hartu dute parte
- f. Leitzako aurrelariak haustura du orkatilan eta oso zail izango du buruz burukorako sendatzea

5. **Honako beste esaldi hauek gaizki puntuatuta daude. Zuzen itzazu, eta arrazoitu erantzuna:**

- a. Hurrengo bi entrenamenduak, aste honetakoa eta hurrengo astekoa Zornotzako igerilekuan izango dira, goizez.

---

---

- b. Bat, bi, hiru, eta lau.

---

- c. Azokara joan eta gazta eta ogia, erosi ditugu.

---

- d. Batzuk biziki maite ditugu beste batzuk epelki.

---

- e. Batzuetan mendira joaten dira, besteetan hondartza aukeratzen dute, eta beste batzuetan etxean geratzen dira.

---

---

- f. Kontzertuetan, jotzen dugunean, diskoko abesti indartsuenak jotzen saiatzen gara.

---

---

- g. Euskal Herrian mendi eta hondartza politik daude.

---

- h. Euskal Herriak mendi, eta hondartza politik ditu

---

# Soluzioak84

1. Musika klasikoak jasotzen dituen dirutza publikoen **defendatzaile** gisa ageri da azken aldian, edozein **gaiez** mintzatzen hasten diren lagunarteko afalosteetan. **Preseski**, horretaz gogoratu da antzokiko bazkide-**txartela** erakutsi duelarik sarrerako leihatilan.

Aretoaren erdialdeko aulki batean eseri orduko programa irakurtzen hasi da. Lehenengo obra-  
ren izena irakurtzeak irribarre bat **pitzarazi** dio: zenbat denbora Schubert-en *Amuarraina* kinte-  
toa entzun gabe. **Senatari** kargua utzi, eta **kabinetea** ireki zuen dina urte izango dira.

Aldamenean eseritako bikotearen solasak eten dizkio oroitzapenak. Nonbait medikuak dira  
biak, edo erizainak **behinik behin (bederen): digestio**, drain edo **operazio (ebakuntza) gela**  
hitzak deskodetu ahal izan ditu haien solasalditik.

2.

a	zanpatu	keinuka	d
b	atzitu	tragoa	f
c	balioetsia	baliozkoa	c
d	imintzioka	itxi	g
e	mizkeria	zapaldu	a
f	zurrua	aukera	i

g	hertsu	gehienetan	j
h	birrindu	desegin	h
i	aldarte	atzeman	b
j	eskuarki	zigortzailea	k
k	zehatzailea	bigunkeria	e

- 3.
- |                  |             |
|------------------|-------------|
| a. bermatu       | f. ardatz   |
| b. gatazka       | g. txertatu |
| c. kaudimen      | h. irizpide |
| d. beregaintasun | i. xedapen  |
| e. hasperen      | j. taxutu   |

4. (Oharra: bestelako soluzioak ere zilegi dira)
- a. Errioxako ardoa sor marka duen ardoa da, Errioxako, Nafarroa Garaiko eta Arabako hainbat upeltegitan egiten dena. Iberiar penintsulako hoberenetariokoen artean dugu, eta, aspaldi honetan, mundu osoan ere ospetsu bilakatu da.
- b. Aurten, ohi baino beranduago ekingo diote mahats biltzeari Arabako Errioxan; haren aurretik egin ohi duten ardoaren jai, hala ere, betiko datan egingo da: bihar izango da Villabuenan.
- c. Bengoetxeak eskuin orkatilako peroneko maleoloa hautsi du, eta ebakuntza egitekoak ziren, Gasteizen. Leitzako aurrelariak igandean hartu zuen min, mendian entrenatzen ari zela zangoa zulo batean sartuta.
- d. Gu azokara joan ginen, eta Miren eta Pello tabernan geratu ziren.
- e. Hizkuntz eskakizunetako probetan, hainbat azterketarik hartu dute parte.
- f. Leitzako aurrelariak haustura du orkatilan, eta oso zail izango du buruz burukorako sendatzea.

- 5.
- a. Hurrengo bi entrenamenduak, aste honetakoa eta hurrengo astekoa, Zornotzako igerilekuan izango dira, goizez. (Subjektuaren ostein koma bakarra ez, tartekiaren koma pareta bai)
- b. Bat, bi, hiru eta lau. (Izenak lotzen ditu, ez esaldiak)
- c. Azokara joan, eta gazta eta ogia erosi ditugu. (Aditz laguntzailea ordezkatzeko duen koma. Aditzaren eta galdegaiaren artean ezin da komarik jarri)
- d. Batzuk(,) biziki maite ditugu; beste batzuk(,) epelki. (Mintzagai kontrastezkoa bada, posible da subjektua mintzagai-komaz markatzea eta esaldi artea puntu eta komaz bereiziko dugu)
- e. Batzuetan, mendira joaten dira; besteetan, hondartza aukeratzen dute, eta, beste batzuetan, etxean geratzen dira. (Mintzagaiaren osteko komak beharrezko dira esaldi mailan; beraz, esaldiak lotzeko puntuazio maila igo behar dugu)
- f. Kontzertuetan jotzen dugunean, diskoko abesti indartsuenak jotzen saiatzen gara. (Mendeko perpausaren barruan mintzagai-komarik ez)
- g. Euskal Herrian, mendi eta hondartza politikak daude. (Mintzagaiaren koma)
- h. Euskal Herriak mendi eta hondartza politikak ditu. (Subjektu mintzagaian komarik ez)

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA



# Bizikleta bideetatik barna eztabaidan Vitoria-Gasteizen

## Ordenantza berria jarri zuen indarrean Udalak urtarrilaren amaieran

MIEL A. ELUSTONDO  
KAZETARIA ETA ARGAZKILARIA



**2**013ko otsailaren 4an, Vitoria-Gasteizko Udalak bizikleta ordenantza aurkeztu zuen mugikortasun iraunkorreko herritar foroan. Ez zen berariazko araudia, ezpada trafikoa arautzen duen ordenantzaren barruan bizikletari dagokion normatiba aldatzeko proposamena baizik. Lehenengo eta behin, justifikatu egin zuen Udalak, esanez araudia eguneratu eta bizikleta Vitoria-Gasteizen dabilen trafikoa errealitate berrira egokitu beharra zegoela: «Azken urteetan, hiriko kaleetatik bizikletaz dabilzan pertsonen kopurua haztearekin batera, oinezkoen alderdietan ere areagotu egin da txirrindularien kopurua; ondorioz, tirabirak sortu ditu oinezkoekin, eta espazio publikoaren kalitateari kalte egin dio», zuritu izan du bere burua Udalak.

### Bizikleta, alternatiba eta bizikidetzatza

Udalak bi erronkari egin behar izan die aurre: batetik, bizikleta hirian mugitzeko benetako alternatiba gisa sustatu nahia; bestetik, garraibide ezberdinen arteko bizikidetzatza arazoak konpondu beharra. Halaber, Udalak azpimarratu izan duenez, azken urteetan txirrindulariekin zerikusia duten istripuen kopurua hazi egin da, eta «herritarrek bizikleta mugikortasuna antola dadin eskatzen ari dira».

Vitoria-Gasteizko Udalak hiriburuko Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planaren barruan kokatu du ordenantza berria. Haren helburuetako bat da «hiri garraio publikoaren eta bizikletaren erabilera sustatzea, hirian mugitzeko benetako alternatibak izan daitezen, automobil pribatuen mendeko ez diren bizimoduak ahalbidetzeko». Beraz, bide horretatik iritsi zaio bizikletari ordenantza berria. Iaz, zirriborroa egin zuelarik, Arabako hiriburuko udalak ahalik eta adostasun handiena lortu nahi izan zuen hirian mugikortasun iraunkorra arautzeko asmoz. Hori horrela, ordenantza proposamena lantzerantz gonbidatu zituen mugikortasun iraunkorrari lo-

turik ari diren eragile guztiak. Prozesua buruturik, aurtengo urtarrilaren 28an indarrean sartu zen Izaera Urbanoko Bide Publikoetako Erabilera, Trafikoa, Zirkulazioa eta Segurtasuna arautzen dituen Udal Ordenantza, besteak beste bizikleta bidezko zirkulazioa erregulatzen duena Vitoria-Gasteizen. Araudien arabera, bizikletek nahitaez gal-tzadatik edo bizikleta bideetatik joan behar dute trafiko lasaituko eremuetan, 30eko eremuak barne. Bizikleta biderik ez dagoen kaleetan, aldiz, espaloitik joan ahalko dira, aldi batez bada ere. Horrekin batera, zenbait kaletan bizikletak ibiltzea debekatu du ordenantzak ordutarte jakinetan: 11:00etatik 13:00era, eta 17:30etik 21:00etara; udan, 22:00ak arte. Guztiaren gainetik, erdiguneko kale nagusietan bizikleta trafikoa debekatzeak hautsa harrotu du, eta bizikletan dabilen asko eta asko haserrarazi eta sumindu.

### Trafikoa arautzea helburu

Bizikletari dagokion araudi berria ez da hutsetik sortua, ez da berariaz egina ere, hiriburuko trafikoa arautzen duen ordenantzaren barruan ageri baita. Horren

arabera, hainbat puntu zehaztu ditu araudiak. Hona hemen horietarik inportanteenak: bizikleta gainerako ibilgai-luekin parekatzen da. Bizikleta biderik bada, bizikletak horietatik joango dira ahal dela, eta ez espaloitik; galtzadatik ere ibili ahalko dira. Trafikoa lasaitzeko lanak egin diren kaleetan, bizikletek galtzadatik edo bizikleta lerroetatik ibili beharko dute, ez espaloitik. Aldiz, trafikoa lasaitzeko lanak egin diren kaleetatik kanpo eta bizikleta biderik ez dagoen kaleetan, bizikletak aldi batez espaloitik joan ahalko dira –salbuespenak salbuespen–, baina zenbait baldintza bete beharko dute: oinezkoen lehenasuna errespetatzea, oinezkoak saihesteko sigisaga ez ibiltzea, abiadura oinezkoen egoitza, oinezkoen segurtasunari eragiten dion maniobrari ez egitea, eta gutxienez metroko tartea uztea oinezkoekin. Hori ezinezkoa bada, txirrindulariak bizikletatik jaitsi beharko du.

Udalak adierazi duenez, «Inguruko hirigintza ezaugarri bereziak direla eta, Erdi Aroko hiriguneko kale guztietan bizikleten zirkulazioa baimentzea proposatzen da –zenbait baldintza gorabehera–, berriaz debekatzen den lekuetan izan ezik».

### Debekua

Zenbait bizikleta eta ziklista oinezkoak saihesteko sigisaga nola, halaxe dabil ordenantza berria, salbu eta erdiguneko trafikoa arautzeari dagokionez. Joan den urtarrilaren 27an, bizikletaren erabilera erregulatzen duen ordenantza indarrean jarri bezperan, hain zuzen, Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Herritar Foroa bildu zen, bizikletaren erregulazioaren puntu espezifikoetako bat aztertzeko: bizikleten joan-etorriak hiriaren erdiguneko oinezkoen kaleetatik.

Izan ere, Udalak erdiguneko zazpi kaletako oinezko-alderdietan bizikleten zirkulazioa debekatu du. Oinezkoentzako zazpi kaleotan bizikletak galarazia du ibiltzea gorago aipatu ditugun ordu-

tarteetan. Horietatik kanpo, txirrindulariak bizikletatik behera beharko du, oinez. Hala ere, inguru horietan bizikleten mugikortasuna bideratzeko, perimetro bereko ordezkari kaleetatik joatea proposatu die udalak txirrindulariei.

Ordenantzak jasotzen dituen beste arau batzuk dira, berriz, jende asko ez dabilen beste zenbait oinezko-alderdietan bizikletaren zirkulazioa baimentzea, 14 urtetik beherako adingabeei eta haiekin doazenei espaloitik eta oinezko-alderdietatik zirkulatzea baimentzea eta beste, baldintza batzuk betez betiere: oinezkoen lehenasuna errespetatzea, haiei arriskurik ez sortzea eta abiadura motelean joatea.

Irristailu, patin eta antzekoetan doazenen espaloitik eta oinezko-alderdietatik zirkulatu ahalko dute, oinezkoen abiaduran.

Txirrindulari batek eraikinen arteko espaloitik edo oinezko-alderdi batetik zirkulatu badu, gutxienez metroko tartea utzi beharko du horien fatxadaraino.

Goian esan dugunez, 2014ko urtarrilaren 28an sartu zen indarrean bizikleta ordenantza berria Vitoria-Gasteizen. Luze gabe, bizikleta erabiltzaileei eskutitza idatzi zien alkate Javier Marotok, hainbat kexa tarteko.

Ordenantza osorik irakurri nahi izanez gero, berriz, jo interneten Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialaren 2014ko urtarrilaren 3ko alera.

**«Hirian  
oinezkoak du  
lehenasuna.  
Ez bizikletak,  
ez autoak,  
ez tranbiak:  
oinezkoak»**



**RAKEL ABERASTURI**

Txirrindulari ohia. Euskadiko eta Espainiako txapelduna. Bizikleta erabiltzailea

Egunkari bidez jakin dut ordenantzaren berri. Kasik nahiago dut ez jakin. Egunez erabiltzen dut bizikleta. Ez dut Erdigunea zeharkatu beharrik, baina entzun ditut besteren kexak... Nire kasuan, gure alabak ez ditu 14 urte, eta espaloitik ibiltzeko eskubidea dudala esan didate. Dena den, 14 urteko depredadoreak ere ez dira gutxi gure hirian.

Nire ustez ordenantza positiboa da, bizikidetzara arautzen duen aldetik, zerbait egin beharra baitzegoen. Hankaz gora zegoen dena! Urteak eman ditugu jendea kontzientiarazten autoa utzi eta bizikletaz ibil dadin eta, orain, bat-batean, ez omen dago ibiltzerik. Erdiguneko kaleetan ari naiz. Lehenago hasi behar zuten neurriak hartzen! Ni bizikletan ibiltzen naiz, baina askotan naiz oinezkoa ere, eta badakit bizikleta ez dela oinezkoa baino lehen. Ulertzen dut oinezkoaren haserrea, nahiz eta, batzuetan, aurretiaz sumintzen den oinezkoa. Bizikleta nahieran ibili da hirian, eta ondorioak jasotzen ari gara orain. Beste ohar bat: bizikletan dabilen askok ez du errepidean ibiltzeko gaitasunik, ez daki. Arrisku gorria dira galtzadatik dabilzanean.

Ordenantza behar ote genuen ez dakit, baina nahaste-borraste hau zer edo zer arautu bai.





VITORIA  
GASTEIZ  
green capital



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

## «Ordenantzaren inguruan sortu den zaratak ez dio bizikletari laguntzen, ez du jendea animatzen»

Rakel Aberasturi,  
txirrindulari ohia eta  
bizikleta erabiltzailea

Debekua... ez zait iruditzen. Esate baterako, uste dut autobus erreia parteka genezakeela autobusek eta bizikletok. Alava jeneralaren kalean, adibidez, bizikletak libre izango du ibiltzea, baina trenbide gaineratik ibiltzea ez zait erraza iruditzen.

Bidegorriak hor dira, beti. Ez ditugu ongi erabili, eta ez dute loturarik ere. Ez dira soluzio.

Hirian oinezkoak du lehentasuna, ez bizikletak, ez autoak, ez tranbiak: oinezkoak.

Bizikletarentzat egindako hiria omen da Vitoria-Gasteiz, baina zailtzen ari dira bertatik bizikletaz ibiltzea. Eta ordenantzaren inguruan sortu den zaratak ere ez dio bizikletari laguntzen, jendea ere ez du animatzen. Bizikletaren eta gainerako ibilgai-luen arteko elkarbizitza posible da; autoak bizikleta errespetatuko balu, alegia.

Uste dut bizikletaren alde egin beharko genukeela: ez dago hura bezain garraio-bide garbirik, ez alternatiba hoberik. Oinez edo bizikletaz. Ez autoaren zaratarik, ez bigarren ilaran aparkatzerik, ez kutsadurarik... Soluzioa dugu bizikleta. ●

## JAVIER MAROTO

Vitoria-Gasteizko alkatea. Ordenantza indarrean sartu eta gutxira gasteiztarrei zuzendutako eskutitza

Mezuak jasotzen ari naiz, esanez bizikletaren erabilera baimentzeko hiriko oinezko eremuetan eguneko ordu guztietan, oinezkoen trafikoa zeinahi dela ere.

Ordenantza berria ez da indarrean jarri zaharra. Onartu aurretik, sakon eztabaidatu dute alderdi politiko eta eragileek. Egia esan, alderdi politiko guztiok (PP, PNV, Bildu eta PSE), bizikleta ordenantza berriaren alde eman dugu botoa.

Araudi berria arrazoi askorengatik da beharrezko. Horietarik bat da Vitoria-Gasteizko bizikleta erabiltzaileen kopurua zazpi halakatu dela azkeneko urteotan. Gure hirian bizikletaren erabilera bultzatu dugulako gertatu da hori. Datu positiboa dugu, zalan-tzarik gabe.

Baina Europako beste zenbait hiritan egin duten gisan, nahitaezkoa da bizikidetza modu berriak ezartzea oinezkoen, txirrindularien eta ibilgai-luen artean.

Guri dagokigunez, 30eko eremu berriak ezarri ditugu, bizikletak galtzadatik segurtasunez ibil daitezken. Bestalde, oraingo bidegorriak zabaltzeko diseinua ere egin da, eta ziklistek antzemandako puntu beltzak ere hobetu dira. Kontziente naiz horrek egokitzapen garaia behar duela, guztion partetik.

Neurez, ez dut inposizioetan sinesten, eta, horrexegatik, gisako neurriok erabaki baino lehen, talde teknikoari eskatu zaio eguneko edozein garaitan zenbait kale aukeran izatea bizikletak hiriko erdigunea zeharka dezan iparretik hegora edo ekialde-

## «Bizikleta erabiltzaileen kopurua zazpi halakatu da azkeneko urteotan gure hirian»

tik mendebaldera. Horren adibide da Alava Jenerala kaletik ibiltzeko baimena: eguneko edozein ordutan eta bi norabideetan ibil daitezke bizikletak bertatik.

Inondik ere, mezu hau idatzi beharrrak esan nahi du beharrezkoa dela ordenantza berria eta berari loturik datorren dekretua are gehiago azaltzea. Horixe egin nahi dugu ondoko egunetan. Betiere, hiritarren iritziek araudi berria hobetzen lagunduko digutelakoan. Eztabaida geraziko duenik ez da, jakina, eta era guztietako iritzi ongi arrazoituak dira bazterretan.

Vitoria-Gasteizko kaleok oinezko eremu bihurtu zirenean gertatu zen moduan, hain zuzen, edo hirian tranbia ezartzeko, edo ez ezartzeko, komenientziari buruz askotariko arrazoiak izan ziren bezala. Nik ez diot uko egingo iritzi bat bera entzuteari, ezta kontuan hartzeari ere. Nire bete-beharra da. ●



### CONBICI

Bizikletaren defentsarako espainiar koordinadora

Egokiena litzateke Trafiko Araudi Orokorra aski argia, eta bizikletaren erabilera bultzatzearen aldekoa izatea. Horrela, hiri ordenantzek ez lukete ibili beharko erabaki gabeko arazoak konpontzen, edo araudiaren muga ulergaitzak azaltzen. Beste zenbait herrialdetan, non bizikletaren erabilera garraibidetzat normalizaturik dagoen, legeria hemen baino askoz sinpleagoa da.

Gure ustez, ordenantzarik zehaztekoan, irizpide nagusi bat hartu beharko litzateke kontuan, hau da, garraibide seguru, jasangarri eta osasungarrienen alde egin behar da, haiek babestu behar dira. Lehenik eta behin, oinez ibiltzea; gehiengoaren garraibidea, hain zuzen. Ondoren letozkeen ordenantzek mugikortasuna arautu beharko lukete, hitzaren esanahi zabalean arautu ere. Horretarako, motordun ibilgailu pribatuak erabiltzetik bestelako modu batzuetara aldatzen lagundu beharko lukete ordenantzek.

Behin baino gehiagotan, bizikletaren erabilera arautu nahirik, eredu bila joan nahi izaten du askok. Gero eta hiri gehiago ari dira mugikortasun eredu berri baten alde lanean, eta batzuek horretarako anbizio handiagoa erakutsi dute beste batzuek baino. Zerrenda handia da, baina guk nahiago dugu batere ez aipatu. ●

## 30EKO EREMUAK

«30eko eremuek errepideko segurtasuna hobetzen laguntzen dute. Ezustekorik gertatuz gero, 30 km/h abiaduran doazen ibilgailuek, gelditu nahi izatekotan, nahikoa dute 50 km/h abiaduran doazenen lekuaren erdia. Istripua izateko arriskua %50 murrizten da. Istripua izanez gero, pertsonen osotasun fisikoak kalte gutxiago izan ohi du, kontusio batzuk baino ez. Umeek, adinekoek eta mugikortasun mugatuko pertsonak ziurrago gurutzatzea dezakete kalea. Beste hiri batzuetan, dagoeneko ezarri dira 30eko eremuak: Paris, Londres, Donostia, Bartzelona edo Zaragoza. Parisen, esaterako, 30eko eremuek kaleen %20 hartzen dute, eta istripuen kopurua %30 inguru murriztu da. Bartzelonan ere istripuen kopurua %26,7 murriztu zen hiru urtean».

(Vitoria-Gasteizko Udalaren informazioa)

«Garraibide seguru, jasangarri eta osasungarrienen alde egin behar da. Lehenik eta behin, oinez ibiltzea»

ConBici koordinadora



### AGURTZANE IBARGUTXI

Kirol entrenatzailea. Bizikleta erabiltzailea

Jakin dut zenbait kaletan bizikletaz ibiltzea debekatu dutela. Ordu-tarteen berri ere jakin dut, eta 30eko eremuak ere ibili ditut. Batetik, irrati bidez jaso dut ordenantzaren berri; bestetik, Udalak etxe guztietara bidali duen eskutitzaren bitartez.

Ordenantza onartu dute, baina ez du bizikletaren erabilera bultzatzen. Jendeari «errespetua» sartu dio. Ordenantzak ez du inor bizikletan ibiltzera animatzen,

## «Bidegorriek Gasteizen ez zaituzte inora eramaten, ez dira inora joateko bidea»

### Agurtzane Ibartutxi, kirol entrenatzailea eta bizikleta erabiltzailea

ez bizikleta hartzera laguntzen. Izan ere, araua da lehenengo-lehenengo hitza, debekua, isuna... Zigorriari lotuta ari dira.

Alderdi positiborik ere badu ordenantzak, nire ustez. Zer edo zer egin beharra zegoen oinezkoak, bizikletak eta ibilgailuak elkarren ondoan bizitzeko. Nik, horretarako, formazioa eta informazioa lehenetsiko nituzke, ikastaroak eta beste. Baina arauak, dekretuak? Ez zait iruditzen. Bide horretan, ni ikastetxeetatik hasiko nintzateke gazteenei erakusten, formazio ikastaroak ematen.

Nik neure esperientzia konta dezaket. Egunero ibiltzen naiz bizikletaz, beti ibili izan naiz, eta ez dut errepidetik joateko eragozpenik. Ez diot beldurrik. Bidegorriei dagokienez, Gasteizen ez zaituzte inora eramaten. Alegia, bidegorri-tarte, edo tartetxoak, egin dituzte, baina ez dira inora joateko bidea: bidegorritik espalora, errepidera, edo jauzi egin behar duzu!

Gure bigarrena haur txikia zenean, bizikletari lotuta orgatxoan eramaten nuen, espaloitik. Zabalak direnean, eta poliki joanez gero, ez dago bizikleta espaloitik joateko oztoporik. Kontziliatu egin behar da hori ere. Sen ona behar da, gauza guztien gaintetik. Esaterako, nire esperientziaren arabera, bizikletak 30eko

eremu horiek errespetatzen ditu, baina, autoak, berriz, bozina joka izan ditut, eremu horretako abiadura-muga batere errespetatu gabe. Alava jeneralaren kalean ibiltzea libre omen dute bizikletek, baina niri ez zait batere gauza segurua iruditzen: lehenetsia beti tranbiak duela, kale estua, autobus eta ibilgailuak... ni ez nintzateke han bizikletaz ausartuko.

Erdigunera joaten naizenean, ondoko kaleren batean utzi ohi dut bizikleta, eta handik oinez abiatzen naiz batera edo bestera. Ez dut ulertzen bizikleta denda barruraino, ondo-ondoraino, eraman nahi duen jendea. Erdigunea oinezkoentzat da, beste inorentzat ez: ez auto, ez motor, ez bizikleta. Eta, gainerakoan, beti, sen onez jokatu, eta poliki ibili. Eskubidea izanda ere, txupinazo garaian niri ez zait burutik pasatzen bizikleta hartuta Andre Mari Zuria plazara joatea. Ezta merkealdi garaian ere! ●



#### GASTEIZKO BIZIKLETEROAK

Gasteizko hiri-txirrundularien elkartea

Hasteko, esan dezagun bizikletaren egoera Vitoria-Gasteizen nahiko positiboa dela gure ustez. Bizikleta garraiobidetzat hartzen duten erabiltzaileen kopurua hazten ari da urtetik urtera. Udalaren zenbakien arabera, mugikortasunaren %7 bizikleta bidez egiten da hirian, eta helburua da 2020an %15ekoa izatea kopuru hori.

Beste zenbait hiribururekin konparatuz gero, espainiar estatuko hiri ziklisten artean aurreko taldean gaude. Egia esan, hiri askok erreferentetzat aurkeztu izan dute Vitoria-Gasteiz.

Bizikleta ordenantza berriari dagokionez, gure elkarteak Mugikortasun Jasangarriaren Foroak egin dituen bileretan parte hartu duela esango dugu. Lehenik ere bazegoen ordenantza bat, baina ez zen guztiz betetzen. Horra, esaterako, oinezko eremuen erabilera zuzena, eta beste. Gure ustez, ordenantza eguneratu beharra zegoen eta, horrekin batera, zenbait jardura arautu beharra ere bai. Hor dira, adibidez, haurren orgatxoak garraioa, ziklistentzako norabide bikotzak, 30eko eremuak, etab.

## «Mugikortasunaren %7 bizikleta bidez egiten da hirian, eta udalaren helburua da 2020an %15ekoa izatea kopuru hori»

### Gasteizko bizikleteroak

Gure ustez, ordenantzak hainbat puntu positibo ditu. Esaterako, kale askotan abiadura murriztu da: 30 km/h zena, 20 da orain; ziklistak lehenetsueneko mugikari dira, oinezkoen eta garraio publikoen maila berekoak; erreiaren erditik zirkulatzeko aukera du orain bizikletak, binaka, paraleloan... Horien ondoan, ordea, bada puntu bat gizarte erantzun handia izan duena: erdiguneko oinezko eremu jakin batzuetan galarazi egin da ordu-tarte jakin batzuetan ibiltzea.

Gure ustez, ordenantzak, oro har, bizikleta bidezko mugikortasuna normalizatzen du. Alderdi positibo asko ditu, baina ordu-tarte mugatuko zonaldeetan ez du zenbait ziklistaren jarrera gizatxarrekoa zuzentzen eta, aldiz, kolektibo osoa zigortzen du. ■

# Jendaurrean hizlari... hau pribilegioa!!!

MANU MARAÑON URIARTE

TREBATZAILEA ETA COACH

**A**hozko komunikazioa, oro har, eta jendaurrean eraginkortasunez hitz egitea oso trebetasun balioetsiak dira, zalantzarik gabe. Enpresek, erakundeek eta instituzioek ondo komunikatzen duten pertsonak behar dituzte. Gizarte- eta zuzendaritza-trebetasun inguruko prestakuntza-eskaintzaren zati handi batek (adibidez, talde-lanarekin, adimen emozionalarekin, gatazken ebazpenarekin edota bileren dinamizazioarekin erlazionaturikoak) komunikazioa du ardatz; besteak beste, komunikazioa, batez ere, pertsonen arteko harremana delako. Bizitza honetan gauza gutxi dira gainerako pertsonekin dugun harremana baino garrantzitsuagoak.

Baina berri ona da jakitea edonork ikas dezakeela, horretarako nahi beste baliabide dugu eta. Niri abantaila gehigarri bat eranstea gustatzen zait: ondo komunikatzeak independenteago, segurua-go eta askeago egiten gaituela, eta gure bizi-kalitatean eragiten duela zuzenean. Beraz, adi!

Gustuko dut esaldi hau: «Jendaurrean hitz egiten ikasi ala jendaurrean hitz egin ikasteko?». Horren ildotik doaz honakoak ere: «esateko modurik onena egitea da» edo «ikaskuntza ekintzan dago». Egia esan, jendaurrean hitz egiteko orduan positiboak diren gauza gehien-gehienak ezagunak dira. Jakin badakigu, baina... egiten al dugu? Ez naiz aholku eta gomen-dio asko ematearen aldekoa; izatekotan, zuekin partekatu nahi dudana da jendaurrean hitz egiteko edozein aukera baliatu behar duzuela, proiektuak aurkezteko eta ideiak defenditzeko prest agertu behar zaretela. Izan zaitezte boluntario horretan. «Jardunak bihurtzen zaitu maisu». Pertsona pribilegiatuak sentituko zarete.

Bost ideia landuko ditut:

1. sinpletasuna: argi, erraz, labur, zuzen
2. naturaltasuna
3. autoestimua – konfiantza
4. arrazionala eta emozionala
5. positibotasuna

## 1. SINPLETASUNA

Ahozko komunikazioan, ematen duena baino ariketa zailagoa da sinplifikatzea. Nire beste esaldi kutunetako batek honela dio: «Bi azalpenen artean, argiena aukeratu; bi moduren artean, errazena, eta bi adierazpideren artean, laburrena». Hau da, argitasuna, erraztasuna eta laburtasuna. Erraza dirudi, baina zenbat lan, hori praktikan jartzeko! Zaila da hain ondo dakidan gutxi horretatik zati bati uko egitea. Baina gertatzen dena honako hau da: jendea aspertzeko sekretua den-dena kontatzea da.

Erraztasun handiegiarekin ezkututzen gara gure lengoia profesional, espezializatu eta adituan. Hori egitean jargoi

hori ezagutzen ez duen jendearengandik urruntzen gara. Kontuz ibili «somnifero korporatibo»arekin... sinplifikatu lengoia.

Ahal den guztietan, helburua interbentzioak ez irakurtzea da, ez eta buruz aipatzea ere. Edukia, ideia nagusiak, barneratu behar dira, eta ondo antolatu, entzuleak gal ez daitezten. Jendearekin harremanetan egon nahi badugu, begiratu eta segurtasun eta gailentasun sentsazioa eman nahi badugu, gure eskema begirada bakarrean kontsultatzeko moduan jarri behar dugu. Denbora hartu behar dugu puzzlearen piezak ondo ipintzeko, bakoitza dagokion tokian, egitura simple batekin.

Ikus-entzunezkoen (power pointa eta abar...) arazoa erabileran dago. Finean, kontua da testua ahalik eta gehien murriztea, irakurketa errazteko; gardenki bisualagoak egitea, diseinu-elementu xumeak gehitzea, irudien indarra baliatzea, datuak ondo aurkeztea (taula eta grafiko errazen bidez...). Ariketa bat da, xehetasun bisualak ezabatu eta sinplifikatzea, guztien artean protagonismoa ikus-entzunezko onenari emateko: hizlariari.

## 2. NATURALITASUNA

Eskolan, institutuan edo unibertsitatean jaso dugun prestakuntza arautuko prozesuan falta izan zaigun hori da, hain zuzen. Apenas egin ditugu ahozko azterketak, oso gutxitan aurkeztu dugu proiektu edo gairen bat gainerako ikasleen edo irakasleen aurrean, taldeko eztabaida gutxi egiten dira. Ez gaude jendaurrean hitz egiteko prestatuak. Hori dela eta, jendaurrean jartzen garenean, naturalagoa da artifizial, hertsia eta rol profesionalarekin estalirik agertzea.

Hortxe dago erronka, garen bezalakoak izateko lan egitea, gure aurkezpenek jatorri-deitura izan dezaten eta paregabeak izan daitezten, gureak. Lotura handia dago naturaltasunaren eta grina/gogo biziaren artean, eta alderantziz. Haiekin etorriko dira gorputz-mintzaira, aho-

tsa, gure geure txinparta. Aurkezpenek uniformetasun handiegia dute, eszenaratzean, egiteko moduan, eta gure nortasuna sare horretan galtzen da. Nire marka «Manu Marañon» da. Zein da zurea?

## 3. AUTOESTIMUA ETA KONFIANTZA

Lotura handia du aipatu berri dugunarekin eta jendaurrean hitz egiteak eragiten digun antsietate eta beldur eszenikoarekin. Estresa eta une gogorak eragiten dituzte. Hori guztia benetako mehatxu bihurtzen da, eta hori aukera bihurtzen jakin behar dugu. Hasteko, normala eta naturala da urduri egotea; gainera, tentsio eta konpromiso puntu hori gauza positiboa da.

Nire ustez, konfiantzari esker, talentuak adierazpen gorena lortzen du. Zertaz ari gara? Berritua ere, gakoak prestakuntza eta praktika direla erakusten duen logika. Ikuspegi kognitiboan oinarrituta, erronkarik handiena, pentsaera tinkoko egoerak sortzea da, erantzukizuna eta trebetasuna gureganatzea, pentsamenduak aldatzea, emaitza positiboak bisualizatzea eta gure sinesmenak modu kontzientean aldatzea.

Jendeak gauza asko egiten ditu ondo. Esaten al diogu? Gizarte-trebetasun honetan, hizlarien autoestimua eta konfiantza handitzeko «bide»etako bat da *feedback* positiboa.

## 4. ARRAZIONALA ETA EMOZIONALA

Gure aurkezpenak, oro har, arrazionalak izaten dira. Baina izaki arrazional eta emozionalak gara, eta horregatik geratzen zaizkigu herren gure jendaurreko aurkezpenak. Uste izaten dugu logikarekin, probekin, datuekin, argudio onekin, gure helburu guztiak lortuko ditugula. Horrela al da?

Gure bizitzan garrantzi handia dute emozioek. Kontua ez da gehiegikeriaz

jokatzea, ez doako malko-isuri eta mizkeriatan erortzea; kontua da barruan daramatzagun emozioak naturaltzat hartu eta partekatzea. Kontzienteki ere, gure interbentzio arrazionalaren kaudimena bilatzen dugun bezala, honako galdera hau egin behar diogu gure buruari: «Eta orain, zer egingo dut jendearen bihotzera iristeko?». Kontatu istorioak, eta komunikatzaile gisa emango duzun saltoa kualitatiboa izango da.

## 5. POSITIBOTASUNA

Munduko egirik biribilenak esan ditzakegu gure ikuspuntutik, datu izugarriak eskaini, eta, jendea motibatu edo mobilizatu beharrean, etxera lur-jota eta aldarre txarrarekin bidaltzen dugu.

Arreta jartzen dugun hori hazi egiten da, arazoak nahiz konponbideak izan. Errazagoa da arazoak eta gabeziak azaleratzea. Nire ustez, ahozko komunikazioaren ikuspegitik, jendeak interes handiagoarekin entzuten ditu proposamenak, konponbideak eta eskain ditzakegun aukerak, ondo justifikatuak, kaudimendunak, errealak, erronka eta anbizio puntu batekin, «barrenak nahasteko» elementuekin. Jendeak sinets dezan nahi badugu: «lor dezakegu...», «goazen...», «gure esku dago...», arreta non jarriko dugun jakin behar dugu, zehatz, haz dadin. Jendearen jarrera, sinesmenak eta motibazioa ditugu jokoan.

Aldez aurretik aipatutakora itzuliz, maila pertsonalean nahiz profesionalean gero eta balioespen handiagoa duen gaitasuna hobetzeko nire harri-koxkorra ekarri ahal izateko zortea daukat. Eskuariki, profesionalentzat egiten dut lan (abokatuak, ingeniariak, medikuak, irakasleak...), zuzendari eta langile publikoentzat, hautetsientzat eta politikarientzat, enpresaburuentzat, sindikalistentzat, kooperatibistentzat (buruentzat, oro har), ikasleentzat... Eta ahozko komunikazioa hobetu nahi duen edonorentzat. ■

# Puntuazioaren oinarrizko arauak (2): esaldi barneko puntuazioa (1)

JUAN GARZIA GARMENDIA

IDAZLEA

**E**saldi barneko puntuazioak badu erraztasun nagusi bat, ez baitugu erabiliko, funtsean, berariaz hartarako gorde dugun marka baino: koma. Izan ere, komaren erreinua da esaldia.

Esaldien artean, koma baino zerbait gehiago erabili dugu, hala esaldi-mugak garbi markatuz: puntua, puntu eta koma (edo bi puntu) edo koma gehi juntagailua. Esaldi-mugaketa hori da lehenbiziko lana, eta, bide batez, esaldiaren barruko esparrua libre uzten duena hitz-ordenarekin zurruntasunik gabe jokatzeko.

Zein da, orduan, kontua? Bada, ea marka bakar hori, koma, non erabili behar den (eta non ez), eta zergatik (edo, hobe, zertarako). Alegia, zein diren irizpideak esaldi barruko koma soil arrunta idazteko.

Aurreko atalean esaldien arteko ari ginelarik genioen moduan<sup>1</sup>, bat etorri

behar dute (salbuespenik ezean), bategatik, esaldiaren **egiturak** (sintaxiak) eta egitura islatzen duen **intonazioak** (prosodiak), eta, bestetik, **puntuazioak**, aurreko biak islatu nahi baititu bere kode urri horrekin. Urri ere urria kodea, kasu honetan: koma bai ala ez.

Aipatua dugu dagoeneko hitz-ordena, eta esaldiaren mailan osagaiek kokapenez aldatzeko duten aukera. Posizio-aldaketan hori ez da, hala ere, askatasun osoa, edo, hobeki esan, ez da nolana hitz gautzen, eta horrekin loturik dago komaren erabilera.

Esaldian osagaiek aditzarekiko hartzen duten posizioa erabakigarria da eman beharreko informazioaren nondik norakoaz hitzunik duen ikuspegia adierazteko. Kontu hori hizkuntza bakoitzean gobernatzen dutenei *funtzio informatibo* deritze, eta aski ezagunak dira halako batzuk euskarazko testugintzan apur bat ibilia denarentzat. Nagusiki, *mintzagaia* eta *galdegaia*.

Ez da hau lekua halakoez luze jarduteko, baina komeni da, noski, ohartxo bat egitea terminologiaz, nahasteak saihesteko. Nire honetan, honako balio hau dute terminoak hizkera teknikoago batean: *mintzagai=topiko*, *galdegai=foku*.

## Lehenbiziko araua

Galdegaia talde foniko bat bera osatzen duenez aditzarekin, ezin da ezarri tartean inolako etenik<sup>2</sup>, eta, beraz:

- Debeku da galdegaia eta aditzaren artean koma idaztea.

## Bigarren araua

Mintzagaia esaldiaren periferiakoa da, eta intonazioak ere, beraz, eten bat du hor, inflexio bat (gorantz egiten du amaieran tonuak, segidakoa zintzilik utziz bezala); beraz:

- Mintzagaia komaz markatzekoa da.

Hona, bada, esaldiaren antolaera ohikoa eta hari dagokion puntuazioa:

Lastertasun-probetan, gazteek irabazi dute.  
MINTZAGAIA, GALDEGAIA + aditza

Aurrera egin baino lehen, azpimarratu behar da esaldiaren mailan gabiltzala, hor baitago indarrean mintzagai/galdegai mekanismoa. Aurreko perpausa mendeko perpaus bihurtuz gero, ez da erabiliko mintzagai-komarik hor (intonazio desberdinak ohartarazten dugunez):

**Lastertasun-probetan**, gazteek irabazi dute.

**Lastertasun-probetan gazteek irabazi dutenean**, aldatu egin da sailkapena.

Bada bigarren esaldi horretan mintzagai-komarik, baina *Lastertasun-probetan gazteek irabazi dutenean* sintagma osoa da mintzagaia hor, eta ez haren parte bat (*Lastertasun-probetan*). Aurreko komari eutsiko bagenio, berriz, bi mintzagai genituzke:

**Lastertasun-probetan, gazteek irabazi dutenean**, aldatu egin da sailkapena.

2. Bestela esanda: ezin da etena egin (komari dagokion bezala) eta ez egin (galdegaia dagokion bezala) *batera*. Tartekiak, bada, aditzaren atzean eman beharko dira, ez aurrean.

1. Ikusi *Administrazioa Euskaraz* aldizkaria, 83. zk.

### Hirugarren araua

Mendeko perpausen mugak, gehienez ere, komaz markatzen dira, eta horraino baino ez da iristen puntuazio-kodearen ahala. Ez dugu koma erdirik edo laurdenik, halako –hots, hutsaz edo komaz mugaturiko– esparruen barruan erabiltzekorik<sup>3</sup>. Beraz, horren kasu bat denez:

- Debeku da mendeko perpausen barruan koma soila idaztea.

### Subjektu mintzagaiaren salbuespena

Gatozen berriro mintzagaiaren kontura. Esan dugu mintzagai diren sintagmak komaz markatzen direla, baina badu horrek salbuespen bat eragin handikoa.

Mintzagaia esaldiaren subjektua bada (eta kasu guztiz arrunt eta beharbada ohikoena da hori), subjektuak estatus berezia izanik esaldiaren osieran, ez da idazten mintzagai-komarik, nahiz eta intonazioak –kokapenarekin batera– garbi erakutsi mintzagai dela subjektu hori.

Alegia, ahoskatzen den intonazio-etenan, mintzagai izateari dagokiona, ez da islatzen, kasu horretan, koma batez. Intonazioari (eta funtzio informatiboari) berez legokiokkeen koma *ezabatu* egiten da subjektua denean mintzagaia<sup>4</sup>:

3. Ikuspegi horrek berdin balio du buelta emanda ere: berak barruan koma behar duen osagai bat unitate zabalago batean integratzeko, komatik gorako marka behar dugu. Hala, puntu eta koma erabiltzen da (esaldien artean bezala), bai zerrendaketa konplexuetan:

... 3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra; 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa...

eta bai gehikuntza konplexuetan:

Gustatu zaizkit loreak, moreak batez ere. [gehi-kuntzaren barruan, komarik ez]  
Gustatu zaizkit loreak; batez ere, moreak. [gehi-kuntzaren barruan, koma]

4. Objektua, datiboa eta gainerako argumentu-osagarriak, arau zorrotzik ez denez, mintzagai arruntaren komaz marka daitezke edo, subjektuen zaku berean sartuz, komarik gabe utzi: *komenentziaren* arabera, alegia.

Donibanen, oso kale-zoko politik ageri dira. [subjektuaz besteko mintzagaia: komaz]

Donibanek oso kale-zoko politik ageri ditu. [subjektu den mintzagaia: komarik gabe]

Subjektuari dagokion salbuespen horrek, hala ere, badu bere salbuespena, edo, egokiago esanda, salbuespena ez aplikatuz atzera mintzagai-komaren arau arruntera itzuliko garen kasua. Subjektuaren segidan aditza badator, etenak bereizten ditu bi informazio-antolaera desberdin, eta egoki da, kasu horretan, mintzagai-komaz markatzea subjektua:

ANEK ikusi du.

*Anek*, ikusi du. [BAI]

Ez da komeni hala ere, mintzagai-komaren erabilera hori testuinguru mugatu horretatik kanpo zabaltzea, bidea emango baikenuke orain artekoak baino ere esaldi luze traketsagoak antolatzeko (kohesio eskasekoak eta, beraz, irakurgaitzak), subjektua hasieran eta aditza han urruneko beste muturrean egokitzen diren horietarikoak.

Izatekotan, ezkerretiko joskerak eragindako nahasbideren bat moldatzeko erabil liteke inoiz koma hori, hala nola:

[Maizterrek bizi izandako miseriak] kontatu dizkigute.

[Maizterrek], [bizi izandako miseriak] kontatu dizkigute.

Jakina, beste antolaera batek ez luke komaren beharrik:

Bizi izandako miseriak kontatu dizkigute maizterrek.

Mintzagai kontrastezkoarena da beste testuinguru bat subjektua mintzagai-komaz markatzea batere kalte ez lukeena:

Maizterrek(,) beren miseriak kontatu dizkigute; nagusiek, beren komeriak.

Tentuz kudeatzekoak dira, hala ere, halako salbuespenak, nahastea sorbaitezakegu, lehenaz gainera, erabiltzaileen artean. Puntuazio arau orokorrak era-

bilera zabalean finkatuz joan ahala, saia gintezke halako nabardurak ere zaintzen.

Aipatu ditugun horiek baino beharrago dirudi salbuespenezko koma horrek subjektu mintzagaiaren segidan aditza datorreneko kasuan, komarik ezean galdegaitzat interpretatuko baikenuke:

*Andoni*, etorri da. [trinkoetan: *Andoni* BAdator]

ANDONI etorri da. [trinkoetan: ANDONI dator]

### Komarik gabe ere lasai eman daitezkeen beste mintzagai batzuk (ere eta ez tartean direla)

Puntuazioaren eginkizuna, batzuetan, erredundantea da, testuinguruak aski garbi uzten duelako egitura sintaktiko, informatibo eta prosodikoa. Bi kasu nagusi aipatuko ditugu:

Sintagmaren amaieran *ere* partikula ageri bada, horrek berak adierazten du sintagma hori mintzagai dela, ezin baita izan galdegai, segidan aditza etorrita ere. Kasu horretan, bada, hautazkoa da (subjektua ez bada) koma idaztea edo ez.

\*Jaialdira ere datoz.

*Jaialdira ere*(,) BAdatoz.

*Jaialdira ere*(,) etorriko dira [BAI].

Antzeko kontua dugu, baina bestelako arrazoiz, ezezko perpausetan. Aurrekoetan, *ere* partikulak adierazten zuen mintzagai zela berak ixten zuen sintagma. Ezezko gehien-gehienetan, berriz, *ez* adberbioa bera da galdegai, eta, beraz, haren aurrean egokitzen diren sintagmak mintzagai izango dira, eta ez galdegai:

*Jaialdira*(,) EZ da etorriko.

Adierazi dugu, hala ere, *ez* dela beti *ez* galdegai (hizpidearen parte izatea ere gerta baitaitezke):

*Horregatik*, EZ da etorriko jaialdira.

HORREGATIK ez da etorriko jaialdira. ■

# Asmatu ezetz!

KAXILDO ALKORTA

LAGUNA

**A**urtengo negua nolakoa izan da? Egutegiaren arabera, martxoaren 20an amaitu zitzai-gun, orain dela gutxi; ahaztutzeko nahikoa denborarik ez da pasa.

Eguraldia dela-eta, egunkarietan agertutako hiru testu aldatu ditut gaztelaniatik euskarara eta hona ekarri. Ez dira aurten-goak. Nahi baduzu, irakurri eta pentsatu noizkoak ote diren, ea asmatzen duzun. Benetan: ez dago tranparik hiru asmakizunetako batean bertan ere. Iradokizuna: testuak irakurri ahala apuntatu papertxo batean noizkoa den bakoitza zeure iritziz. Ez egin tranparik, zeuk bai baduzu egiterik-eta.

1. «Dena aldatzen ari da. Mundu honetan dena aldatzen ari da, baita Bilboko klima ere. Ez da lehengoa, eztaaa...! Noiz izan dugu abenduaren azkenetan zelaiak loratan ikusteko poz-aukera? Noiz lorategiak larrosez, lili ubelez, bioletez eta udaberriak janzen dizkien edergarri guztiez apainduak ikustekoa?».
2. «Argi ikusten dugu erabat iraulita daudela bai egurastia, klima, bai zoologia. Golkoko itsaslaster handiak ("Gulf stream"-ek) jasan duen bide-aldaketaren ondorioz gertatu da hori seguru asko. Fenomeno horren seinalerik agiri-rik dira, azkeneko hiru neguetan ez dugula hotzik nabaritu eta, ani-

maliei dagokienez, berriz, gero eta sarriagotan azaltzen direla baleak, orain mende batzuk gure itsasbazterretatik alde egin zuten zetazeoak. Lehen, sasoi honetan, itsas zabalera alde egiten zuten ekainetik abuztura barbarinek, izurdeek, hegaluzeek, hegalaburrek eta txitxarroek, baina orain, arrain horiek sekula ezagutu dugun baino ugariago dira hemen...».

3. «Nik ez dakit zer dela-eta, baina egia da mundua ez dabilela lehengo legegpean: lehen uda ez zen negua bezalakoa. Aurten ez du egin ez udaberrikerik ez udarik, eta udazkena ere ezkatutu egin dela dirudi...».

Begira noizko testuak diren: aurrenengo, 1904ko abenduaren 29koa (*La Gaceta del Norte*), duela ehun eta hamar urtekoa; bigarrena, 1882ko maiatzaren 12koa (*El Urumea*), duela ehun eta hogeita hamabikoa, alegia; hirugarrena, 1910eko urriaren 2koa (*La Gaceta del Norte*) Zer? Pentsatzen zenuenarekin bat al datoz urteak?

Apirilaren 23an da San Jorge eguna. Santurtziko zaindarioidea, jai edo erdi jai egiteko aitzakia. Eta santurtziarrek esaten dute –guztiek ez dute esango, noski– egun horretan beti euria egiten duela. Entzun eta entzun, azkenean nazkatuta, ondo zabaldua dagoen pentsaera-edo hori zenbaterainoko egia zen ikusi behar

nuela erabaki nuen orain urte dezente. Eta hala, San Jorje bigarrenean askotan galdetu izan nien santurtziar lagunei: *Atzo zer, euririk egin al zuen?* Eta erantzuna, haiek nahi baino gehiagotan: *Atzo ez, baina beti egiten du.* Hori duk, hori! Esaten dutena sinistu egiten ote dute?

San Prudentzio egunean ere beti euria; santuari, errespetu osoz, *txixati* deitu ere deitzen diote. Baina *San Prudentziotan zer?* galdetu, eta egun horretan Armentia inguruetakoa zelaian eserita familiar-tean edo lagunartean patxada ederrean barraskiloak maiz jandakoak direla dezenteri entzungo diezu. Euria noiz, hortaz? Etxera erretiratutakoan. Ondo da. Apirilean euria egitea ez da harritzekoa, baina han-hemengo beste hainbat santuren egunetan –baita abuztuan ere– beti euria egiten duela esatea ez da, ez da...

Batek asmatu eta esan; beste batek entzun, gustatu eta hark ere esan; hari entzun dionari grazia egin eta hurrengo baten edo batzuen aurrean errepikatu... Eta azkenean, hala delakoan.

Hasierako galdera: Nolakoa izan da amaitu berria den negua? Gogoan? Hemendik urte batzuetara ez ote gara ari-tuko eginez: *Lehen neguan hotz izugarria egiten zuen. Zeuk ez dituzue ezagutu izotz-kandelak, izotz-burruntzi haiek. Orduan bai, orduan negua negua zen...*

Topiko asko eta asko ditugu. Beharrezkoak diren seinale? ■




# Euskarazko lege-testuen beregaintasuna eta segurtasun juridikoa

JAIONE ARAMENDI

IZOKO TERMINOLOGIA ATALEKO TEKNIKARIA

**L**ege-testu bateginen bidez, testu bakarrean biltzen dira lege batek indarrean jarri zenetik izan dituen aldaketa guztiak, bai lege berriak onartu direlako, bai beste arlo bateko araudiak arlo horretako zenbait alderdi ukitu eta aldatzen dituelako. Testu bateginak lege-maila du, eta haren bidez bateratutako maila bereko arauak indargabetuta geratzen dira<sup>1</sup>.



Ingurumen Sailak Euskal Herriko Natura Babesteko Legearen euskarazko testu bategina lantzeko enkargua egin dio IZOri. Lan horrek legegintzako dekretu-proiektu bat du helburu, eta, berorren bidez, Euskal Herriko Natura Babesteko Legearen testu bategina onartuko da.

Lanerako, gaztelaniazko eta euskarazko testuak bidali zituzten, eta agindu ziguten ezen, euskarazko testua lantzean, 2/2013 Legearen azken xedapenetatik lehenengoan xedatutakoa bete behar zela; hain zuzen ere:

«...Testu bategina aipatu legeak testu bakarrean bateratzera eta beharrezko artikulua, kapituluak eta xedapenak berrizendatzera mugatuko da, hala nola numerazio berrira egokitzera lehen barne-bidalketak.»

Testu bateginean, segurtasun juridikoa helburu dela, benetakotasuna bermatzeko, bai gaztelaniazko bertsioak eta bai euskarazkoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako jatorrizko testuak jaso behar dituzte, behar-beharrezko diren aldaketak bakarrik eginda, eta, betiere, jatorrizko testuen zentzua ezertan ukitu gabe.

Halako testuetan aldaketaren bat egin behar baldin bada, aurretik zehazten dira, txosten baten bidez, zein izango diren egin beharreko egokitzapenak, eta txosten horren arabera onartutako jatorrizko testuekiko aldaketak/egokitzapenak baino ezin dira egin.

Aldaketak, besteak beste, honelakoak izaten dira:

1. 2/2013 Legea, Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea aldatzeari buruzkoa:

**«AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA**

Jaurlaritzari baimena ematen zaio lege hau indarrean sartu eta sei hilabeteko gehienezko epean testu bakar bat birsortzeko, honako hauek batzeko: Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea, lege hori aldatzen duen martxoaren 11ko 1/2010 Legea, eta lege hau (2/2013)».



- Testuaren idazkera berriak eragindako berregituratzearen arabera aldatzea artikuluen, kapituluaren eta xedapenen zenbakiak, eta, ondorioz, testu barruko aipamenak eta bidaltze-oharrak zenbakikuntza berri horretara egokitzea.
- Garai ezberdinetako testuen artean izan daitezkeen ezberdintasun formalak bateratzea (erakundearen izenaren aldaketa, gizonen eta emakumeen berdintasunaren arabera egokitutako hizkera...).
- Akats tipografikoak, gramatikak, aritmetikoak edo materialak zuzentzea...

Kontua da aldaketak egiteko erabakia gaztelaniazko testua bakarrik gogoan izanda hartzen dela, eta ez direla aintzat hartzen euskarazkoak dituen premiak. Horren ondorioz, langai izan dugun testuari dagokionez, 2/2013 Legean, azken finean, ukatu egiten da testu bateginaren aukeraz baliatzea euskarazko testua eguneratu eta hobetzeko.

Euskarazko testuari gaztelaniazkoaren baldintza berberak betetzea eskatzen zaio. Izan ere, bi hizkuntzetako testuak dira ofizialak; biek dute zuzenbidezko eragin eta balio osoa, testuaren edukiri dagokionez ez ezik, baita formari dagokienez ere –lege-testuetako terminoek, izendapenek... lege-indarra baitute–, eta haiei lotu behar gaitzaizkie.

Baina bi testuen artean bada alde nabarmen bat: bi hizkuntzetako testuek balio ofiziala izanik ere, praktikan, Legebiltzarrak testu bakarra onartzen du –gaz-

telaniazkoa–, eta testu horixe da eztabaida eta aldaketaren bidez sortzen dena. Euskarazkoak itzulpenak izaten dira (aldian aldikoak, zuzenbide-erloko adituen onespenerik gabe taxututakoak, erakunde ezberdinetan landutakoak, esku ezberdinek egindakoak...), eta egoera horrek, euskararen erabateko normalizazio ezarekin batera, ondorio nabarmenak ditu euskal hizkera juridikoaren kalitatean.

Segurtasun juridikoaren aplikazio partzial horrek euskarazko testuetan eragindako aldaezintasunak bideak ixten dizkio itultzaileari euskarazko bertsiok behar lituzkeen aldaketak egiteko (gaztelaniazkoak beharrezko dituen egokitzapenak, esan bezala, aurrez aztertuta eta arauz ezarrita daude).

Esaterako, dagokigun kasuan, 2/2013 Legean ezarritakoa betetzeak inkongruentzia eta inkoherentzia nabarmenak eragiten ditu; izan ere, lege hori betez gero, arau-zati bati *artikulua* esan beharko litzaioke leku batean, eta *atal* beste batean, edo Euskal Autonomia Erkidegoa bi modutara izendatuta egongo litzateke (*Euskal Autonomia Erkidegoa* eta *Euskal Autonomi Elkarte*).

Espainiako Konstituzioan<sup>2</sup> jasotako segurtasun juridikoaren printzipioak (9.3

2. Kasu honetan ere, euskarazkoak ez du gaztelaniazkoaren ziurtasun bera eskaintzen, Espainiako Konstituzioaren euskarazko lehen itzulpena eguneratu behar zela-eta gaur egun bi bertsiok baititugu:

**EHUKOA:**

9.3. Konstituzioak bermatzen ditu: legezkotasun printzipioa, arau-hierarkia, arauak publiko egitea, aldekoak ez diren edo norbanakoen eskubideak

art.) eskatzen duenez, zuzenbide-hizkerarak argia, ulerkorra eta kontraesanik gabekoa izan behar du, baina printzipio hori, euskaldunoi dagokigunez, ez da betetzen.

Euskararen normalizazioaren bidean oro har, eta bereziki zuzenbidearen arloan, ondoan ditugun hizkuntzen parera iristeko ahaleginean izan den bilakaera eta garapena dela eta, segurtasun juridikoa bermatzeko helburu horrexek berak –alegia, lege-testuak Administrazioarentzat, herritarrentzat nahiz komunitate juridikoko kideentzat fidagarriak, egokiak eta eraginkorrak izan beharrek– justifikatzen du gaztelaniazkoarentzat aurreikusitako ez diren hainbat aldaketa egin behar izatea euskarazkoari.

Hori guztia kontuan hartuta, esku artean izan dugun testuan, euskarazko testua zuzena, egokia eta koherentea izan dadin, gutxienez egokitzapen hauek egin behar zirela ikusi genuen:

1. Lexiko arruntaren idazkera eguneratu, Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuaren* arabera. Adibidez, *ohizko* => *ohiko*; *iharduera* => *jarduera*, *jarraia* => *jarraitua*, *batik-bat* => *batik bat*...

*murritzen dituzten zigor-xedapenen atzeraeraginik eza, segurtasun juridikoa eta botere publikoaren erantzukizuna eta arbitrariotasun-debekua.*

**EUSKALTZAINDIARENA:**

9.3. Konstituzioak bermatzen ditu legezkotasun printzipioa, arauen arteko hierarkia, arauen publikitate, xedapenen zehatzaren atzeraeragin eza –xedapenok banakako eskubideei begira onuragarri izan ez edo eskubideok murritzen dituztenean–, segurtasun juridikoa, erantzukizuna, eta botere publikoaren nahierakeriaren debekua.



2. Terminologia espezializatua eguneratu, azken urteotan hiztegi eta testu espezializatueta finkatutakoaren arabera:

- Terminologia juridikoa. Adibidez, *bere ekimenez* => *ofizioz*, *zigortze-ahalmena* => *zehatzeko ahala*, *araudia* => *erregelamendua*, *aginpidedun organoa* => *organo eskuduna*...
- Arau-zatien izendapenak. Adibidez: *erabakia* => *xedapena*, *idazpurua* => *titulua*, *atalburua* => *kapitulua*, *atala* => *artikulua*...
- Arauaren xede den arloko terminologia espezializatua. Adibidez, kasu honetan, ingurumen arlokoa: *ikusmira* => *paisaia*, *berroneratzea* => *leheneratzea*, *aniztasuna* => *diversitate*, *babestutako naturgune* => *natura-gune babestua*, *babesa* => *kontserbazioa*...

3. Erakundeen izenak eguneratu/bateratu: *Euskal Autonomi Elkarte* => *Euskal Autonomia Erkidegoa*, *Consejo Asesor de Conservación de la Naturaleza del País Vasco-Naturzaintza* => *Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Aholku Batzordea*...

Gure iritzia da ezen, bai lan horretan, bai eta garai ezberdinetako lege-testuen zatiak jaso behar diren lan guztietan ere, euskarazko legediak bete beharreko helburuak behar bezala bete dituzan, ezinbestekoa dela aldatetak egitea adierazitako irizpide linguistikoen arabera, eta irizpide horiek legegintza-prozeduretan txertatu beharrekoak direla.

Arazoa azaldutako gutzia baino konplexuagoa da, jakina, eta zuzenbideko adituei dagokie konponbidea emateko bideak proposatzea, eta ez hizkuntzalarioi. Ildo horretan, oso baliagarriak iruditzen zaizkigu Oskar Aranek eta Xabier Arzozek artikulua banatan gai honi buruz egindako gogoetak:

«Beharbada, lege- eta zuzenbide-arloko itzulpenean, euskaraz klausula berezi bat beharko luke lege-ordenamenduan, azken xedapen moduko bat, honako hau edo antzeko zerbitu esango lukeena: “Aukeran izango dute euskara ofizial den lurraldeetako agintariek gaztelaniazko, frantsezko eta ingelesezko lege-testu jatorrizkoen itzulpen bidezko testu euskaratuak aldatzeko, edukiari ezertan eragin gabe, euskara juridikoan eta administratiboan gertatzen diren berrikuntza, hobekuntza eta garapen terminologiko, joskerazko eta estilizkoen arabera, eta Euskaltzaindiaren arau berrien arabera, jatorrizko testuak bere hartan inongo aldaketarik gabe iraun arren”». ARANA IBABE, Oskar. Amaierako xedapen berezi bat lege testuetan. *31eskutik* (bloga). 2013/10/24. <http://31eskutik.com/2013/10/24/amaierako-xedapen-berezi-bat-lege-testuetan/>.

«Egun eginkizun saihestezina dugu testu juridikoan euskal bertsioen akatsak zuzentzea eta terminologia bategitea. Ez bakarrik testuen kalitatea atontzearen (burujabetasuna-

ren hasierako testuei ongi letorkekie zuzenketa), baita ere urteotan konturatu edo ez euskara eta administrazio hizkera zerotik hasita hainbat aurreratu delako/dugulako guztion artean. Testuak euskaraz izateari ez baderitzogu aski, erabili nahi baditugu ere (zuzenbide irakaskuntzan, administrazioaren barne eta administrazioarekiko harremanetan, auzitegietan), testu apainak behar-beharrezkoak ditugu administrazioan dihardutenek eta legelari guztiok. Azken batean, terminologia bat egin, eta, oro har, testu juridikoen euskal bertsioen akats eta urritasunak zuzendu beharra daukate herri-botereek. Terminologia bat egitearen helburua, jakina, testu kontsolidatuak egitea izango litzateke, eta testu kontsolidatu horiei lege-indarra eman beharko litzateke legez edo, legegintzarako eskuordetzaren arabera, dekretu legegilez». ARZOZ SANTISTEBAN, Xabier. Nafarroako eta Euskadiko komunitate politikoen izen ofizialak: euskal izenari buruzko eskumenaz iruzkinak. *Eleria, Euskal Herriko Legegarien Aldizkaria*. 3. zk., 41-50 or., 1998. <http://www.euskomedia.org/PDF-AnIt/Eleria/03/03041050.pdf>. ■

# Lurralde bakarra, hiru hizkuntza, modu anitz

KOLDO TELLERIA

ARKITEKTOA ETA EHUKO IRAKASLEA

**H**irigintza- eta lurralde-antolaketaren lanak parte-hartze prozesuetan oinarriturik gauzatzean, hizkuntzaren eta lurraldearen arteko lotura posible batzuk antzematen dira. Artikulu honek lotura horiei buruzko hasierako hausnarketa bat izan nahi du. Hain zuzen, lotura posible batzuk aurkeztu nahi ditugu: zenbait parte-hartze prozesutan ikasiaren ondoren, batez ere Zaldibarko Hirigintza Araudiaren Plan Orokorra idazteko eginiko parte-hartze prozesuan, hizkuntza ezberdinen erabiltzaileek eta hauek osaturiko gizartearen antolaketara, bizimodua eta lurraldearekin duten harreman ezberdinen artekoak.

Ondorio hauetara iristeko, gizakia eta lurraldea ulertzeko modu zehatz batetik abiatu behar dugu. Bizi garen ingurua gure nortasunaren eta kulturaren adierazle garbia da, gizakiak betidanik moldatu izan baitu, garaian garaiko beharrak asebetetzeko. Hasieran, bizitzarako beharrezko babesa eta elikadura lortzeko eraldaketak ziren: lurra landu, zuhaitzak aldatu, ur bideak egin, eta abar. Pixkanaka, talde lanean antolatzen eta tokian tokiko inguruari egokitzen joan da gizakia, inguru hori bere beharretara eraldatuz. Talde antolatuetan bizitzeak eta garatu duen elkar harremanetarako gaitasunak beste bizidunei baino ahalmen handiagoa eman dio gizakiari, ingurua ustiatzeko eta hori gizartearen beharretara moldatzeko.

Mendeetan zehar, gizakiak nolabaiteko oreka gorde du lurraldearekin eta bere parte izan da gaurdaino; lurra bere eskuekin landu du eta jakitun izan da naturaren elementu bat gehiago dela. Naturan gertatzen diren dinamiken ezagule, moldatzaile eta ustiatzaile zuzena izan da, beti ere jakitun naturaren egoera egokiak bizitzarako baldintza hobekak eskaintzen dituela, eta esperientziatik ikasitakoaren bitartez eragin dio inguruari.

Bizi-mailan aurrera egin duen heinean, usteko beharren mailek ere gora egin

dute. Garai bakoitzeko baloreen eta ikuspuntuaren arabera eraldatu du gizarte bakoitzak bere ingurua. Eraldaketa hauek bakoitzak erakusten digu gizakiak bizi duen inguru zehatzarekin duen harreman mota bat. Beraz, nor garen, nola pentsatzen dugun eta gure baloreak zein diren islatzen dugu bizi garen lurraldean eta bertan eragiten ditugun aldaketetan.

Azkenaldiko eraldaketen oinarrian, ingurua ulertzeko beste modu bat erakusten digu gizakiak: hiritar bilakatu gara, eta hiri natura kanpoko bizitokitza hartu dugu. Esan genezake gizakia ez dugula hiri ez den beste ekosistemetan kokatzen. Askotan esan ohi da herriak eta hiriak inguru artifizialak direla, eta, natura, hauetatik kanpo dagoen eta gizakiak menperatzen duen zerbait dela.

Natura menperatzeko asmoz, esperientzian oinarritutako ezagutzatik aldendu, eta naturan ematen diren dinamikak modu sakonean ezagutu nahi izan ditugu. Zientzien garapenarekin, naturaren elementuak isolatu eta laborategietan formulatu eta ulertu izan dira. Zatituz, isolatuz eta haren dinamika konplexuak sinplifikatuz, natura menperatu dugula uste dugu, eta, errazte bide horretan, ezagutza teknikoak garatu eta legeak, formulak nahiz teoriak sortzeko gai izan gara.

Lege, formula eta teoria horiek oso garrantzitsuak izan dira gure bizitzaren zati ezberdinak ulertzeko, baina arazoak ere sortu dizkigute. Egia absolututzat hartu ditugu, eta jakintza zientifikoa itsu-itsuan sinetsi. Mendeetan zehar naturarekin harremanetan ikasitakoa albo batera utzita, jakintza teknikoa bakarrik erabiliz –laborategian garatu eta natura bere elementuak bakanduz ulertu duena, alegia–, naturaz kanpo jarri gara.

Azken mende erdian, pentsaera teknikoa izan da oinarria gure lurraldea eraldatzeko, eta garapen ekonomikoaren izenean egin da. Gure ingurua antolatzeko orduan, produkzio-sistemaz kanpo geratzen diren behar eta nahiak ahaztu eta baztertu egin ditugu.

Gure lurraldea pasa da bizitzaren sostengua izatetik gizartearen mugikortasunerako azpiegituren sostengua izatera. Atzera bota ezin diren galera asko ekarri dizkigu horrek; esaterako, lurraldearekiko pertzepzioa aldatzea. Lurrarekin izan dugun harremana galdu egin dugu, eta eskuekin lantzen genuen ingurua autoetatik ikusten dugun paisaia bilakatu da. Gure bizimoduaren abiada bizia dela eta, ez dugu lurrarekin harreman zuzenik, eta bertan gertatzen diren dinamikak ez ditugu jada zuzenean bizitzen.

Lurraldea antolatzeko ezin dugu teknika-ri adituez soilik baliatu, tokian tokiko biztanleen ezagutza eta esperientzien jakituria jaso behar dugu. Jakituria hori eta ezagutza teknikoa nahasiz lortuko dugu lurraldea antolatzeko beharrezko ezagutza; eta hori guztiz parte-hartze prozesu konprometitu eta benetako bidez bakarrik egin daiteke.

Jakintza hibridatu berri horien bila, eta gizartearekin lanean, hizkuntzek lurraldearekin duten harreman ezberdinak nabaritu dira Zaldibarko esperientzian. Hastapeneko ideia hori hobeto ulertzeko Tabara soziologoak proposatzen

duen SEIC modeloa erabiliz gero, honako hauen arteko harremanak aztertzen dira: gizarte ezberdinak nola antolatzen diren, zer eta zenbait kontsumitzen duten, nolako hondakinak sortzen dituzten eta zein antolaketa modu dituzten. Soziologoak dio lau esparru horiek gizarte guztietan daudela lotuta, eta gizarte ezberdinen arteko harremanak ere lau elementu hauen bidez suertatzen direla.

Tabarak SEIC modeloa eskaintzen digu gizarte ekosistema gisa ulertu ahal izateko. Labur azalduz dio, gizarte oro elkar lotuta dauden lau aspekturen bidez aztertu daitekeela: informazio moduak (hizkuntza, Zaldibarko kasuan); kontsumo maila; gizarteak sortzen dituen hondakinak zein kutsadura, eta azkenik, gizartearen antolaketaren konplexutasuna. Zaldibarko kasuan, hiru hizkuntza ezberdinen araberrako giza komunitateak antzeman dira, eta horien arteko aldeak suma daitezke Tabarak aipatzen dituen hiru elementuak erlazionatuz, hots, gizarte-antolaketari nahiz lurraldearekiko ikuspuntuari begira.

Lehen komunitatea landa-inguruan nagusia den hizkuntzak sortzen du. Lurraldearekiko lotura handia du, zuzeneko ustiatetarekin. Auzolanak eta taldean ustiatzeko antolaketak mantentzen ditu, idatzi gabe edo antolaketa araudi bati lotuak, eta horien ardura ohitura bidezko transmisioz egiten da.

Bigarren komunitatea hirian nagusiagoa den hizkuntzak sortzen du. Lurraldearekin duen lotura ez da guztiz zuzena, aisialdirako erabiltzen baitu batik bat, nahiz eta baratzearrekin eta zenbait iturburuetako urarekin harreman zuzena izan. Aurreko komunitatearena baino konplexuagoa du antolaketa: lege eta arauak idatzi, eta organo administratiiboak sortu ditu.

Hirugarren komunitatea Internet eta teknologia berriei lotuta dago eta hiri-lur


industrialean kokatzen da. Produktzioan du oinarria, eta harreman internazional eta komertzialak gauzatzen ditu. Lurraldearekin oso harreman gutxi du, komertziorako azpiegiturak jasoko dituen ingurua bezala ulertzen baitu lurra. Antolaketa konplexua eta aldakorra du, bai araudi aldetik baita komertzio egituraren aldetik, eta, Zaldibarko lurraldeko arau eta legeez gain, berarengan eragina dute ere kanpo dauden egitura eta antolaketak ere.

Aurkeztu diren hiru hizkuntzen araberrako komunitateak, txikiagoetatik handiagoetara doaz, hurrenez hurren, energia-kontsumoari eta kutsadura-mailari dagokienez. Gizartearen konplexutasuna ere modu berean ematen da. Lurraldearekiko lotura eta ezagutza- edo jakintza-maila, berriz, lotura handitik ia loturarik ez izatera pasatzen da.


Hasierako azterketa besterik ez dugu aurkeztu hemen, baina garbi adierazten du lurraldea ulertzeko balore-sistema ezberdinak antzeman daitezkeela hizkuntzari lotuak. Bizimodu eta lurraldearekiko harremanak ezberdinak dira; beraz, etorkizuneko lurraldea konplexutasunetik aztertu eta antolatu nahi bada, aztertu behar dira hizkuntza-sistema ezberdinek lurraldearekiko duten harreman ezberdinak eta jakintza zein ezagutza ezberdinak, lurralde-antolaketan kontuan izan beharreko aspektu anitzez gain.

Etorkizuneko bidean, zenbait faktore jakintza teknikoa bezain garrantzitsuak dira: gure esperientziak, usteak eta sententzioak, afektibitatea, gizartearen aniztasuna eta konplexutasuna. Eta ideia hori gure pentsaera eta erabaketan txertatuz gero, bizitza egoki eta errespetagarriagoa edukitzeko bidean izango gara; lurralde berriak amesteaz gain, bide berri eta zentzudunak hartuta, gauzatzea ere posible delako. ■

Hitz gezidunak

	Portuko langile	17	Baita	Aleazio mota	●
	* DEITURA	Utzi	Hitzez adierazia	Gezia	
	▶	▼	▼	▼	
	Gaizki esaka jardun				▼
	Senideak				
* IZENA	Alferra			Edari bizi	
Artesia	Arto irinezko opilak			Xalbado- rren deitura	
▶	▼		Emakume izena	▼	
			Nolabait		
Habearte		Trebea, abila	▶	▼	
Begira		Bokala			Hangoa
▶		▼		Jainko egiptoarra	
				Leku hartan	Hidrogenoa
					Su
Lokarria		Altzari mota	▶	▼	Garen hauek
Juntagailua		Ogi, hitz-elkarketan			Egile atzizkia
▶		Jokatzen den papera	▶		Sobera
		Kontso-nantea			Bokala
Okzitaniako hizkuntza	▶	▼		▼	

Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da.

1. Alanbreak mozteko erreminta.
2. Auzapez.
3. Metalezko soka.
4. Sarrera.
5. Egoskin mota.
6. Zazpi egun.
7. Itzaropena galdua.
8. Doktoretza lortzeko ikerketa lanak.
9. Setiatzeko ekintzak.

SOLUZIOAK

	L	E	T	U	N	A	H	U	R	A
	E	R	D	A	R	O	A	G	L	A
	X	V	E	S	E	A	N	A	I	R
	Z	A	L	A	G	I	A	N	O	L
	V	M	A	I	S	E	A	R	O	L

1. Alikera
2. Alkatre
3. Kareta
4. Area
5. Tea
6. Asre
7. Etsia
8. Tetsiak
9. Setioak

Hitz gezidunak

Goitik behera

# IVAPen argitalpena: *Komunikazio Elektronikoa.* IVAPen gomendioak web-orriak idazteko

<http://www.ivap.euskadi.net/r61-s20001x/eu/s20aWar/novedadesJSP/s20aVerDetalleDesdeMail.do?s20aNuevoldioma=eu&idVallorSeleccionado=545Xo>





## Herri Administrazioetako Kudeaketaren Bikaintasunari buruzko Kongresua

**Maiatzak 22 eta 23, Vitoria-Gasteiz 2014**

Izen-ematea: [qepea.net/congreso/eusk](http://qepea.net/congreso/eusk)



# Q-epea

Euskal Erakunde Publikoak Bikaintasunerantz  
Entidades Públicas Vascas por la Excelencia

## Erronka berriak!

ADMINISTRAZIOA  
**EUSKARAZ**

zure etxean doan jaso nahi baduzu,  
idatzi helbide honetara:

**IVAP**

Donostia-San Sebastián 1  
01010 Vitoria-Gasteiz  
[administrazioeuskaraz@ivap.es](mailto:administrazioeuskaraz@ivap.es)

Abizenak

Izena

NAN/IFZ/ENA

Helbidea

Posta-kodea

Herria

Probintzia

Mugikorra

e-posta